


# anaitasuna

1977.EKO OTSAILAREN

15-EKOA. 334. ZENBAKIA.

35 PTA.

# HATZ ALKATEAK NOIZ ARTE?



KoMiki  
BERRI  
BATEKIN





# Literatur fitza irten berriak

## **OTSAILAREN 18an, ARRATSEKO Setan.**

ZILARREZKO LAUBURUA delako literatur saria Arantzadi-Jakin-en NATUR ZIENTZIAK liburuari eskainiko zaio. Saria, beronen lehen irabazleak, MARTIN DE UGALDEK emanen du, beronen obraz M.Pelay Orozkok hitz eginen. Honenbesterekin erakusketa bukatu egingen da.

**GALERIA DEL LIBRO**

LIBURUDENDA EUSKAL LIBURUAK  
Ercilla, 35 | tel. 4438399 - BILBO 11



## **UTZAZU TABAKOA ALBERT PALIWODA-REKIN**

ZURICH-EKO PSYKHOLOGI, METAPHYSIK  
ETA NIKOTINAREN KONTRAKO  
INSTITUTUKO ZUZENDARIAREKIN

BIDAIA EGITEKO BILBOTIKO HEGALALDI ERREGULARAK DITUZU, ZURICH-EN LEHEN MAILAKO HOTELETAN EGONEZ.

JOAN, LARUNBATEETAN EGITEN DA, IGANDEETAN ETORTZEKO

## **HURRENGO IRTENALDIAK: MARTXOAREN 12 ETA 19AN**

**OHARRA:** PALIWODA JAUNA munduan zehar oso ezaguna da, tabako erretzaile, alkoholtzale, drogazale, beldurri-herabeti, kleptomano, hatzazaljale eta jatunei egindako trataera parapsykologikoengatik.

**BANA BANAKO KONTSULTAK, ETA EZ TALDEKA  
INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK EGITEKO**



Diners txartelaz geroago ordaintzekoak jasotzeko agente bakarrak

**MARSANS**

Gran Via, 39. Telefonoak 416 42 00 - 415 98 22. BILBO  
Plaza la Victoria, s/n. Telefonoa 438 99 01. BARAKALDO  
Las Mercedes, 19. Telefonoa 464 49 55. HAREATZA  
Hernani, 1. Telefonoa 41 81 19. DONOSTAIA

## AURKIBIDEA

- 3. Editoriala
- 4 - 13. TELETIPOA
- 15. Oihu bat: KALERA!
- 19 - 20. Gora Euskadi ikasia
- 21 - 24. KOMIKIA
- 25 - 26. JAKIN berriro ere
- 27 - 28. Medikuntza sendatzailea.
- 30 - 31. Zinea, atsegingarrria.
- 32 - 34. Herri mailako hizkuntza.
- 35 - 38. Erljioa
- 39. Postaz etorriak
- 40 - 41. Aisiaren ordua
- 42. Kaleko

Maketapena eta  
Marrazkiak: Erramon Zumalabe.

Argazkiak: Arkoila  
Moldiztegia: Gráficas Sampedro  
Part. Alzola, 2  
BILBAO.

Dep. Legal: BI-1753-1967



**Euskal Herriak izan du bere lehen lorpena: ikurrina.**

**Ez da lehen urratsa besterik. Baina urratsa da, aurrerabide bat da, Herriak berak eskuratu duelako, hainbat burruka-urtetan eskuetatik kendu ez duen zuzia izan baita, kendu ahal izan ez diotena.**

**Orain arte izkututik argitu dio zuzi honek bidea Herriari. Herria bera ere izkutuan baitzebiten gehienbat. Eta argi baten beharra zuen. Euskal Herriak berak ez zuen hitzegiten. "Herriaren ordezkari" batzu mintzatzen ziren "País Vasco"ari buruz; hau zela, beste zela; hau nahi zuela, beste ez zuela nahi. Eta hala zen. Inork ukatzen ez zuenez... Baina nork uka zezakeen Herriak ahotsik ez bazuen...?**

**Baina egun batetan Herri hori ohartu da, agerian ibili ezinik ez duela. Eta poliki-poliki, oso poliki, kaleratzen hasi da: kaleak, herrietako enparantzak bete ditu: bereak baititu. Kaleetako nagusitze hau ezin jasan izan dute hainbat urtetako nagusiek; eta Herriaren odolak hainbat kale gorritu du.**

**Era berean Herriak ikusi nahi izaa ditu "Herriaren ordezkarien" aurpegiak bere zuziaren argitan. Beraien ordezkaritza dorretan, udal-etxeetan hain zuzen ere, behar ditu ikusi.**

**Zer nolako harridura hauena, hainbat bider eta edonon ordezkatu duten "País Vasco" hori, Euskal Herri bilakaturik ikustean. Hainbat burrukaren irudiaren argiak itsutu egin bide ditu.**


**Bestalde, "separatismo"aren irudiak ez zuen lekurik administralgoaren dorreetan. Eta arrazoi osoa dute. Ezin elkar daitezke hainbat urtetako *hatza* eta herriaren zuzia, hura nabarmenegi geratzen baita.**

**Beste irtenbiderik ez duela eta, zenbait alkate, eguneko portaerak eskatzen duen bezala, erabat demokrata bihurtu zaigu, Euskal Herria EUSKAL HERRIA dela ohartu ezinik, gehiengoa, errepresentatzen zuten "País Vasco"koa dela sinestuz. Beste zenbaitek alde egin du.**

**Baina jaun *hatza*, konturatzen zara Herriaren lehen urratsa bakarrik dela? Herriaren burrukak laster bereiztuko ditu bere lagun eta etsaiak. Hasiara bakarrik da.**

**Kaleak, udaletxeak, lantegiak, etab., Herriak eskura ditzaneko eguna gero eta gertuago dago.**

**Ikurrina gurea da. Ikurrinaz, besteen bila.**



## teletipoa

### URTARRILA

- 22.— Lau gaztek gose greba bat hasten dute Basaurin.
- 23.— Laudioko udaletxean jendaurreko pleno bat egiten da.
- 25.— Aitor Argarate galerazten dute Berangon eta La Salverra eraman.
- 26.— Mungian I. Luke entrepesako greba. Asanbladan erabakia. 7.
- 28.— Gernikan, Sta. Maria elizan 13 pertsona hersten dira gose greban.
- 29.— Basauriko gose grebalariek, bukatzen dute hertsaldia. E.N.M.E.S.A. izeneko Laudioko entpresan —350 emakumek eta 150 gizonen osatua berau— asanblada bat egiten da bertan emakumeek jasaten duten diskriminazioari ebazpide bat emateko.  
Iruineako Teniente Alkateak dimisioa eskatzen du, ikurrina onhartu zelako.  
Euskaltzaindiak, ofizialki eskatzen die Espainia eta Frantziako estatuen gobernuetuei euskararen ofizialkideatasuna.
- 30.— Eneko Otegi galerazten dute bere etxean.  
Ikurrina tinkatzen da Zarautama, Etxebarri, Harrigorriaga eta Morgako udaletxeetan.

Sondikan, amnistiaren aldeko manifestatze bat egiten da. Berrehun bat pertsonak osatua.

Basaurin, Baskoniaren football-zelaian, euskaraz egiten da lehen aldiz bertan gertatu zen kirol partiduaren presentatzean.

- 31.— Basauritik "ihes" egindako bost gatibuak, kartzelan bertan aurkituak dira 54 egun ezkutaturik pasatu ondoren.

Lanean hasten dira F.T.S.-etako langileak (520), Eskuin Aldeko tren eta autobusen geraldia bukatuz.

### OTSAILA

- 1.— Patxi Zabaleta galerazten dute Iruineko bere bulegoan.
- 2.— Gernikako gose greba bukatzen da.  
Guipuzcoa Unida jaiotzen da.  
Basoar oletan, Gasteizen hertsia egiten dira lantegi barruan bertako langileak.  
Gasteizen, Gairu entpresan 230 langilek greban diraute.
- 3.— Bilboko alkateak, kazetari aurreko eta jendaurreko pleno batetan, diskurtso bibril batez, esku garbiketa bat egiten du, herriaren galdaketak Madrilerara bidaliz.  
Ataunen, ikurrina masta erditan jartzen dute, bordoi beltz batekin eta guzti, do-lua adieraziz, amnistia lortu arte holaxe irauteko asmoz.

Bertako Dorronsoro nebarrebak daude preso, hain zuzen.

Arabako Alegria herriko alkateak herriari ezer esan gabe ikurrina ipintzen du udaletxeetan: 10 dira honela Arabako ikurrindun herriak.

- 4.— Santa Agedari gomendaturiko egunaren aurrekoa. Korruak ugari aritu dira Euskal Herri osoan zehar. Aurtengo berriak, amnistiaren eskakizuna eta ikurrinen ugaritasuna izan dira.
- 5.— Larrabetzua eta Ondarroako udaletxeetan ikurrina ipintzeko erreferendumak egiten dira.  
Barakaldon eta Errekaldeberri hertsaldi bana egiten dira amnistiaren eskakizuna apuiazteko.
- 6.— Basauriko hauzategietako elkarte guztien asanblada egiten da.  
Larrabetzuan amnistiaren aldeko manifestatze bat egiten da eta aldi berean udaletxean ikurrina ipintzen da.  
PNV-ek gutun ireki bat bidaltzen dio Bilboko alkateari, honen diskurtsuari erantzun nahiz.
- 7.— Bermeon Zentral nuklearrei buruzko hitzaldi bat.  
Transporte pribatuen greba hasten da.  
"Eusko ikurrina bai, espagnolako be bai".
- 8.— Laudioko LIPMESA-ko langileek urtarrilaren 5ean hasi zuten greban diraute: 330 bat langile dira.



## GOSE GREBAK ETA HERTSALDIAK

Gose grebetarako dei ugari egin izan da. Gipuzkoa aldean, haietarik batzu aurrera eraman ez badira ere —azken egoerak horrela eskatzen zuelako— Bizkai aldean, aldiz, hainbat gose greba eta hertsaldi burutu dira, beren helburuak oso-osorik bete ez diren arren.

Basaurin, Urtarrilaren 22an lau gazte hertsu ziren horrela, Basauriko herriari presoan oraingo trantzea jakinerazteko. Grebak iraun zuen 8 egunen barruan. Bi agiri eman zituzten, ondorengo puntuokin: Eskubide demokratikoak, amnistia osoa, gorputz zapaltzaileen ezerezteia eta Euskal Herriaren ez-dependentsia.

Mungiako San Pedro elizan Urtarrilaren 15etik 18ra hertsu ziren gose greban, amnistia, euskararen ofizialkidetasuna eta foruen berrezarpenaren alde.


Gernikako Santa Maria elizan 13 pertsona hertsu dira gose greban Urtarrilaren 28an, eta horrela irauten dute iragan 2rarte, puntuotan finkaturik: Amnistia osoa Yeu-ko "presoen" egoeraren kontra, gorputz zapaltzaileen kontra eta erantzukizunen eske, Tarabusirekiko atxikimendua, despedituen berrartzea, ekintza parapolizialen salhatzea,...

Hil honen 2an arratsaldeko 3,30etan apezten komisio batek jakinerazten die, Apezpikuak bidalitako ohar batetan azaltzen zenez, bortxa publikoa arratsaldeko 5etan sartuko zela elizara

hertsitakoak kanporatzera. Bostak eta laurdenetan hain zuzen, goardia zibilen teniente bat eta beste 4 numero sartzen diran elizan, "nola edo hala" atera behar zituztela elizatik janinerazteko. Hitzok entzutean, hamairu grebalariek beren oinez irtetea erabaki zuten. Koartelean, une horretan, 6 ibilgailu "Land Rover" izenekoak zeuden bildurik, ezer gertatzekoan ekinari emateko prest. Gose grebalarien taldean, ba ziren PNV-ko bat, LCR-ko bat eta MC-ko bat, baina beste enparauak KAS-aren helburuetatik hurbil ari direnak ziren. Grebalarien agiri batetan esaten denez, ekintza hau, gure Herriak lehen azalduko helburuak lortzeko ta iuturiko katearen "maila bat gehiago" da.

Hilabete honen 5ean, Barakaldo-ko Esperantzako parrokiari 60 gazte hertsu ziren gauean amnistiaz "pentsatu eta otoi egiteko", beren agirian esaten dutenez. Gau berean, Errekaldeberriko elizan berrogeitamar bat pertsona hertsu ziren amnistiaren aldeko burruka bultzatzeko eta botatze librea eragozteko.

Urtarrilaren 21etik 23rarte, Bilboko, Castaños, Zurbaran eta Zurbaranbarri aldean ere 35 pertsona hertsu ziren amnistia osoaren alde. Atxikimenduzko telegrama bat bidali zieten Yeu-ko herbesteratuei. Eta hauek, honela erantzun zieten: "UR ARTEKO LAGUNAK, ESKERTZEN DIZUEGU ZUEN LAGUNTASUNA; AURRERA DENOK BATERA".



## IKURRINA ETA ERREFERENDUMAK

1977-URTARRILA-23

**LAUDIO.**— Urtarrilaren 23an, igandez, eta bertako alkatesa den Mari Josefa Otxoa-k haren hospakizuna atzeratu nahi zuen arren, Laudioko udala jendaurreko pleno batetan bildu zen, ondorengo eguneko ordenaz:

- 1.—Etxarri - Aranaz-eko udalak 77-1-16an sinatu zuen akordioarekiko atxikimendua.
  - 2.—Arabako udalen agiria, 77-1-16.
  - 3.—Laudioko udaletxeko balioan ikurrina jartzea.
- Hiru puntuak onhartuak izan ziren gehiengo absolutuaz.

Udaletxean bilduriko 11 pertsonen bileraren gora-beherak, plaza bete jendek entzun ahal zituen. Etxarri-Aranazko akordioa irakurriz hasi zen: amnistia osoa, euskararen ofizialkidetasuna eta foruen berrezarpena.

Teniente alkateak eta alkatesak gogorarazi zuten, irailan egin zuten amnistiarekiko atxikimendua, baina ezin dutela ezer esan euskararen ofizialkidetasuna eta foruen berrezarpenari buruz, herria erreferendum batez kontsultatu baino lehen.

Udaleko batek hartu zuen hitza eta, askatasunik ez dagoenez, erreferendumak ez zukeela efikaziarik ukango esan zuen.

Beste udaleko batek ere adierzi zuen erreferemaren kontrako eritzia, aurrekoaren hitzak bere ratuz.

Ondoren kozketa nominal bat egin zen. Onhartu egin zen Etxarri-Aranazeko akordioarekiko atxikimendua aldeko 9 bozez, 2 kontrakoak zirela.

Gero, Arabako udalen agiria irakurri zen: Etxarri-Aranazera heltzearen ezina, udaleko erabakiak betetzera zihoazen arren; gobernuarekiko jokabide arbitrari eta zapaltzaileen salhatzea;

eta Etxarri-Aranazeko akordioan finkaturiko helburuak lortu arte burrukan ekiteko asmo sendoaren berrespena.

Agiria, onhartua izan zen aldeko 9 bozez, bi kontrakoak zirela.

Ondoren, 9 udalekok sinapeturik zetorren ikurrina jartzeko agiria: Euskal Herriak —azaltzen du agiriak— beretzat hartu du, edozein ideologiatik edo politikatik landa; ikurrinaren usuarioa gehituz joan da bertako eta etorkin asimilatuaren artean, guztion ahaleginek atera dutenez ikurrina klandestinitatetik, ez diogu uko egingo lorpen honi, denok dugun gurreria, sinbolo hau Euskal Herria batzeko baliagarri izan dadin, eta etorkizunarantz zabalik dagoen herriaren nortasuna lortzeko ere bai.

Teniente alkateak eritzi partidista bat eman zuen ikurrinari buruz, eta erreferenduma egin behar zela proposatu zuen.

Alkatesak ere erreferenduma eskatu zuen, egianta jakiteko ea ikurrina den herriak aukeraturiko bandera, eta, elkartzeko eta ezhausteko gain den.

Enparantzan bilduriko pertsonen, 6.000 inguru, oihu egiten zioten alkatesari: **"Josefa dimite el pueblo no te admite"....** Udaleko batek, erreferendumaren proposapenei erantzunez, esan zuen, erreferendumaren hauripetan lehenbizi jarri behar dena kargu publikoak direla, Alkateztatik hasita.

Egin zen bozketan, alkatesa izan zen kontrako boza eman zuen bakarra. Sinatu zuten 9 udalekoek, beraz, ikurrina jarri zuten, holaxe erabaki baitzen. Eta hantxe jarrita irauti beharko zuen hurrengo iganderarte —30 egunera arte— plenoak erabaki zuenez.

**IRUINEA.**— Iruineko Teniente Alkateak, Xabier Rouzant dimi-

sioa eskatzen du, ikurrina onhartua izan zelako Udalaren bileran. Urtarrilaren 29an, botazioak hasi zirenean, irten egin zen biltzar gelatik. Bihoa.

**PORTALDE.**— Herri honetako kontzejal diren Karmelo Pariza, Pedro R. Murga, Marzelino Rubio eta Migel Cuestak ere dimisioa eskatzen dute Bizkaiko Gobernariaren aurrean, ikurrina udaletxean tinkatzea erabaki zelako, antza, hauxek izan baitziren "ezetz" bozkatu zuten laurak.

Urtarrilaren 30ean ikurrina ipintzen da ZARATAMO, ETXEBARRI, HARRIGORRIAGA eta MORGAKO udaletxeetan.

**BILBO.**— Hilabete honen 3an, 300 pertsonen aurrean, Bilboko udaletxean egin zen plenoan erabaki zen, ikurrinaren onhartzea erreferendum bat egiteak baldintzatzen duela.

Bilboko alkateak, Jose Luis Berasategik, mozio hau irakurri zuen: "Justiziatan pentsatuz, ikurrinaren onharpina baliotzeko, bizilagunen gehiengoaren oneritzia behar da. Eta honela, Gobernariatzako Ministroa izan behar du —edo bestela Gobernua beraherri kontsulta hau bideratzeko behar diren arauak diktatu behar dituen, gehiengoaren eritzia jasotzeko, huraxe izango baita guztiek errespetatu eta irmotuko dutena."

Irakurketaren ondoren egin zen bozketan, 19 kontzejaletatik, 18k erreferendumaren alde botatu zuten. Orain Madrileri itxarotzea besterik ez da geratzen, erreferendum hori nola egin behar den dikta dezaten. Argi geratzen da beraz alkatearen jokoa, herriaren eskari nabariengadik ihesi doan gizon honena.



PNV-aren Bizkaiko udal ordezkari batzuk egindako gutun irekian, erreferendum hori egiterakoan kontutan hartu beharke liratekeen puntu batzu azaitzen dira: ikurrinaren alde daudenek, informabideetarako eta propagandarako eskubidea; 15 egunetako aurrerapena gutienez erreferendumaren konbokatorian; astegunegitea, azkenekoa egin zen bezala, eta gainera, ikurrinaren alde edo kontra daudenez gain, ea udalekoen alde ala kontra dauden ere bai.

DCV-ek, ALV-ek, PSDE-k eta PDP-ek, ikurrinaren aldeko atxekimendua adierazi dute ondorengo slogan astabelarrigarriaz: "eusko ikurriña bai, espāñolako be bai".

**ATAUN.**— Gipuzkoako herri honetako udalak, hilabete honen 3an, bere plenoan erabaki ondoren, ikurrina masta erditan jarri zuen, krespoi beltz batekin erdian, amnistia heitzearen zain. Ulertzekoa da 2.100 bizilagun baino ez dituen herritxo honetan hori gertatzea, zeren bertako bi seme-alaba —Jone eta Joxe Mari Dorronsoro— preso baitaude.

**ALEGRIA.**— Arabako herri honetan, aikateak inori ezer esan gabe, eta herriaren nahia konprenituz, ikurrina jarri zuen udaltxeko mastan hilabete honen 3an. Hamar dira honela ikurrindun herriak Araban: Legutiano, Aramaiona, Alegria, Araia, Agurain, Okendo, Laudio, Amurrio, Kanpetzu eta Maeztu.

**LARRABETZUA.**— Iragan 5ean ikurrinari buruzko erreferendum egin zen eta hurrengo egunean, igandez, ikurrina jarri zen eta amnistiaren aldeko manifestatze bat egin zen herrian zehar.

Urtarrilaren 31n gertaturiko jen-

deurreko plenoan, luzaro iraun zuten alkateak eta herriak "ikurrina bai eta ikurrina ez" eta "erreferenduma baietz eta ezetz". Azkenean alkateak erabakia hartu zuen, herriaren kontrakoa, hategia, hurrengo larunbatean, 5, erreferenduma egin behar zela.

2 egunean, herri asanblada bat egin zen erreferendumari buruz herriak erabakia har zezan. Boikota erabaki zen, "ikurrina bai, erreferenduma ez" lemapean. Bestalde, beste taldetxo batek, batzarre bat egin zuen, parte hartzea erabakiz, horretarako aurretiaz eta jende gehiagok erabakitakoa apurtuz. Larunbatean, beraz, halako giro nahastatutxoa nabari, jende askok zer egin ez zekielarik. Dena den, larunbatean, arratsalde, 6ak ingurua Herri Asanblada bat egin zen, 200 bat lagunek parte hartzen zuteiarik. Azken orduko eztabaidak garbitzeko izan zen, hau da, batzu botatzera joan zirenez gero, zer erabaki definitibo hartuko dugu, joan ala ez joan? Eta horretan geundela, bertan zeuden 8 bat gordia zibilek disolbitzeko eskatu ziguten. 5 bat minututako epea eskatu zitzairen erabakia hartzeko. Eta hala egin zen, ia jende guztia ez botatzearen alde deklaratu zelarik.

Dena den, botoa oso gutxi eman zuten: 90ek. Horietarik 85ek baietz, 4k ezetz, eta 1 nula.

1977 - 2 - 6: Hurrengo egunean, eguerdiko ordu batetan, amnistiari buruzko pankarta eta ikurrin pila baten laguntzarekin, txistulariak aurretik zirela kalejira egin ondoren, ikurrina jarria izan zen ofizialki Herriko Etxean Ikurrina jarri eta berehala, amnistiaren aldeko Batzorde abertza-

lek Euskal Herri osoari ateratako agiria irakurri ondoren, Gora Euskadi Askatuta eta Gora Euskadi Sozialista oihukatu zituzten.

Bukatzeko, Larrabetzuko 21 urtetatik beherakoak atera zuten manifestua irakurri zen. 16 urtetatik 21etara bitartekoek ba dutela gaitasunik botatzeko eta Udalaren bestean edo hobeto, ezagutzen dituzte herriko arazoak diote. 16 urtetik gorakoek botorako eskubidea duteia adieraziz. Eta hala segitzen du agiriak: "Herriak ikurrina, amnistia, euskararen ofizialtasuna, indarpresiboak kentzea, Euskal Herriarentzako autogobernua eskatu zituen. Udalak ez du bere erantzuna eman. Hau ikusirik, udala, herriarentzat, kaltegarri izan dela salhatu eta 16 urtetatik gorakoentzat botoa eskatzen eta esijitzen dugu eta Udai guztiaren dimisioa".

Berriz ere, Gora Euskadi batzu bota ondoren, jendea banatu egin zen.

**ONDARROA.**— Hemen ere alkateak inposaturiko erreferendumaren kontrako boikota masiboa izan zen, 6.084tatik 1499k baino ez zuten botatu larunbat 5ean. Hauetarik 1114ek baietza eman zuten eta 80k ezetza, baina inork ez zuten boto zuririk eman. Igandean, arratsaldeko lehen orduetan jarri zen ikurrina udaltxean, jende guztiaren pozez, batez ere "Txikia"ren amak masta besarkaturik bi hatzamarrak jaso zituenean.

**PLENTZIA.**— Bestelakoa izan zen erreferendumarekiko Plentziaren erantzuna: 1896 pertsonatatik 1114ek eman zuten botoa, zeinetatik 1026ek baietza eman baitzuten, 68k ezetza eta 20k zuritan.

**DERIO.**— Hamabost ordu iraun du ikurrinak udaletxeko balkoian zintzilik. Bilbotik 7 kilometrotara dagoen herritxo honek, ba du udaletxea, baina bere Ayuntamiento Bilbokoaren sukurtsal bat besterik ez da.

Hil honen 4ean, hiru zahar eta 2 gaztek, herriaren nahia jasorik, alkatearengana joanik, ikurrina eskatu zioten. Honek baietz esan zien.

Udalak hurren egunean egin zuen bileran, Bilboko alkatearengana bidali zuen ikurrinaren aldeko komisia. Eta Bilboko alkateak, horrelako istiluetan ez sartzea gomendatu zien.

Halare, igande 6an, arratsaldeko ordubata aldean, ikurrina jarri zen udaletxean txistu eta kalejira giroan, baina goizaldean, norbaitek kendu egin zuen, 4etan ez baitzegoen. Errepublikan aldirio Derion ikurrina jarri zuen gizon bera izan zen oraingoan ere jarri zuena.

**MORGA.**— Urtarrilaren 30ean, goizeko 12,30ak inguruan, Morgako Udaletxeak ofizialki, sesio baten ondoren ikurrina jarri zuen.

Ordu batak inguruan jendea baten zihoan neurrian, ikurrin haundi bat atera zuten gazteek, eta beren inguruan, txistu eta guzti halako festatxo bat muntatu zuten.

Ordu biak inguruan Morgako Andra Mariara, joan ziren kotxe multzo haundi baten aurrean bertako ex-presoa batek ikurrina zeramala eskutan.

Andra Marin manifestaziotxo bat egin ondoren, bazkari haundi bat egin zen. Horrela iraungo zuen giroak gaua etorri arte.

## LANTEGIAK

### LAUDIO.—

**L.I.P.M.E.S.A.**-ko langileek soldata oso baxuak hartzen dituztenez —16.000 pta.inguru— eta lan giroa ezin-txarragoa dutenez, sindikatu bertikalaren inoperantzia eta entpresako juratuen eragin gutia ikusiz, asanblada bat egin zuten iragan urtearen hazilaren erdi aldirio. Komeniorik ez egitea erabaki zuten, PAKTU bat baizik, asanbladak langileen ordezkari gisa hautatu zuen komisiio baten bidez.

### 1976—HAZILA.

#### 24 eguna.

Entrepresako juratuk dimititu egiten dute.

Eskari bat egiten zaio zuzendaritzari:

—Barruko arautegia egitea eta jakineraztea.

—Komisiioaren osokideen izenak jakineraztea.

—Entrepresa barruan asanbladak egiteko baimena.

—Abokatuak, asesoratzailer gisa etor zitezten baimena.

#### 25 eguna.—

Zuzendariak komisiioarekin biltzen dira eta hau azaltzen dute:

—Egingo zatekeen edonolako arautegiak ez lukeela baliagarritasun handirik edukiko, oraingo Lege Laboral aldakoarraren isplu soila izango bailitzateke.

—Komisiioa, benetan langileen ordekoa dela segurtatu nahi dutela, eta sindikatuen aurrean beren legezatzearren ahaleginduko direla.

—Asanbladak ospatzeko, baimen ofizialez gain, beste baldin-

tza batzu jartzen dituzte, maiztasun eskasa eta langileek haietarako ondorioen erantzukizun osoa hartu behar dutela.

—Asanbladetara ezin daitekeela abokaturik joan, ez eta besterik ere, plantiletan barru ez balego.

### 1976—ABENDUA.

#### 3 eguna.

Iragarkien taulan agertzen dira Komisioko 8 osokideen izenak eta haien ordezkioen era bai. Beren funtzioak azaltzen dira eta lista hori boza eman behar zaiola BAI edo EZ esanez.

#### 6 eguna.

BAIETZ irteten da. 252 dira aldeko bozak; ezezkorik ez zen egon eta 49k ez dute bozkatu.

#### 14 eguna

Sindikatuak onhartu duela juratuen dimisiioa jakinerazi egiten da.

#### 29 eguna.

Baimenez asanblada bat egiten da bertan soldatez eta lan egutegiaz mintzatzeko. Langileek egiten duten proposamendu ekonomiko zehazten da: I.R.T.P. entpresaren kontura; denekiko 6.000 pezetako atxazia, nominan jarria; PAKTU hau seihilabetero errebitsatzea; 100 o/o gaixoardietan; 30 egunetako oporrak; 40 ordu astero, 35 gauekoek; 30 egunetako frogaldia; bizitz segurua, etab...

### 1977—URTARRILA

#### 4 eguna.

Zuzendaritzak egiten du bere opakizuna: 5.000 pezetatako altxatzea Abenduaren 28koaz gain; Mutua Vizcaya-ri informez bat eskatzea, laneko arriskugarritasuna eta txozitate gibeleratzeko; ekonomatu bat lortzeko gestioak arintzea; bidaien kostuak entpresaren kontura, lanerako direnean; Babes entrepresa batekin ari direla harremanetan. Berau,





ahalik eta opakizunik handiena dela esaten du entrepresak. Hau da, ez duela dirurik. Egun berean, arratsaldeko 6,30 etan, baimenez asanblada bat egiten da. Ez da onhartzen entrepresaren opakizuna. Greba bati hasiera ematea erabakitzen da.

Entrepresak, bere opakizuna auzatuz eta grebak langileari bere soldatan dakartzkion penak azalduz, gutunak bidaltzen dizkie langileei. Gutun hauetan, urtarriari dagokion nomina hipotetikoa ere bidaltzen die, bakoi-tzari berea.

#### 5 eguna.

Greba hasten da.

Entrepresak komisioari ohar bat bidaltzen dio, greba hau ezlegala dela esanez eta Urtarrilaren 4ean eginiko opakizunak ezereztu egiten dituela jakineraziz.

#### 7 eguna.—

Baimenez beste asanblada bat, lehengo eguneko gauza berak tratatzeko; greba aurrera doa.

Entrepresak, Ford etxearekin kontratu bat duela esaten du eta eskari berezi bat duela, erantzun ezinekoa. Egoera hau arintzeko, 2 ordu extra opatzen ditu altxatzeaz eta guzti, horrela, dirua ba duela adieraziz.

#### 10 eguna.—

Langileek agiri bat zabaltzen dute lantegian eta Laudion, daramaten burrukaren zergatikoak azaltzeko. Agiri honetan agertzen diren puntu batzu trata ezinak dira aipatzen bertan:

- Lan astea 44 orduetara gutitzea.
- Babes soziala eta IRTP entrepresaren kontura.
- 15 eskalafoiak 5etara gutitzea. Horretara, soldaten altxatzea bat gertatuko litzateke. Eta gainera, denekiko 6.000 pezetatoko altxatzea, oinharri-soldatan bertan jarria.
- Eta PAKTU hau seihilabetero errebisatuko dela.

#### 13 eguna.

Syndikatuak, LIPMESA.-ko zu-

zendaritzaren eskariz, Istilu Kolektiboa formaltzen du, eta astelehen 17rako alde biak deitzen ditu elkartzeratze batetarako. Asteazkenean, entrepresak, botatze gutunak bidaltzen ditu, eta oraindik zigorgu gabeko langileei esaten die, ez duela bere opakizuna aldatzen. Gainera, mehatxuz esaten die langileei 24ean lanean hasteko.

#### 28eguna.

Gasteizen elkarrizketak daude zuzendaritzarekin. Komisioak, plataforma errebindikatzailerik berean tinkatzen da, eta botatakoen berrartzea eskatzen du. Entrepresak, Otsailaren 1ean lanean hasteko esaten du, horrela berrartuko dituela eta, baina ebentualak kalean geratuko direla hala ere. Tratutan hasteko geroagoko errendimendu handiago bat egon beharko dela lanean. 31 eguna.

Syndikatuei baimena eskatzen zaie, eta entrepresari ere bai, gaur asanblada bat egiteko Billosan, baina baimen hau ukate egiten du gobernadorearen ordena batek.

### 1977-OTSAILA

#### 1 eguna.

Hau da botarikoak lanean hasi daitezen, entrepresak jartzen duen azken eguna. Langileak ez dira lanean hasi. Alkatesaren bidez, elkarrikuste bat eskatu dute gobernadorearekin.

Gaur entrepresak beste opakizun bat egiten du eta postaz bidaltzen die langileei atzoko fetxaz. Bertako puntuak, hauk dira: Botariko guztien berrartzea, lana normaleztatzen denean; lan mailak, 15etik 9etara gutitzea; lehengo lan mailatik beste berri batetara igotzea, gutienez 4.800 pezetatoko altxazia gertatzen da,

eta gehienez 6.700, 5.200ekoa izanik batez bestekoa; erretiratzekoan edo istripuren bat gertatzerakoan, soldataren 100o/oa jasoko da, lana gehitzen denean (50/oeko absentismoa).

Ondoren bildu egin zen Lipmesako langileria asanblada batetan eta ez zituen onhartu aurreko proposapenak, soldata handiagoak nahi dituzte batez ere.

#### 5 eguna.

Gaur, larunbatez, elkartzen da Lipmesako komisioa Arabako gobernariarekin. Bileraren doinua latza izan zen. Gobernariak protestaz hartu zuen, berandu helitzeagatik; tardantzaren karia burukrazia izan bazen ere. Gobernariak ez zion utzi komisioari hitz egiten, eta piketeak egingo balira, indar publikoak mehatxatu zuen. Laster bukatu zen, ordu bat, geroago bilera zuelako Lipmesako zuzendaritzarekin. Gainera, esan zuen, hil baten barruan lortu ez zutena ez dutela lortuko oraindik aitzina. Komisioak erantzun zion, hobetze sozialak lortu dituztenez, segitzen badute burrukan soldaten hobetzea lortuko zuketela. Gobernariak esan zuen, hori lor zezaketela, edo entpresa herstea, bestela. Ondoren, bozketak egitekoan eskua jasoz egitearen sistima kritikatu zuen gobernariak. Gaur ere, komisio eta entrepresaren ordezkoez negoziatu une bat ukan dute, 5 minututakoa, eta ez da irtenbiderik ikusten, zeren langileek, entrepresak opaturikoa baino soldata handiagoa eskatzen baitute, eta entrepresak ez du ezer jakin nahi horretaz.

#### 8 eguna.

Manifestatze bat egiten da herrian zehar 5,45tan hasita, 300 edo 400 lagun. Gehienak Lipmesakoak dira. Besteak Arda-koak.

# EUSKAL HERRIAN

## ESKUIN ALDEKO TRENAK ETA AUTOBUSAK

F.T.S.—izeneko entpresak, Hibaizabaien Eskuin Aldeko transporteak zuzentzen dituen normaleztatu egiten da Urtarrilaren 31n. Bertan lan egiten duten 520 langileek bukaera ematen diote honela iragan 21ean hasi zuten grebari.

## BIZKAIKO GARRAIOEN GREBA

Bizkaiko garraioen koordinatzaileak, hil honen 7rako guztiekiko greba bat hastea erabaki zuen herrialde honetan. Azken Ekainaren 6an sinaturiko konbenioan dago nonen iturburua, langileak ez baitaude berorrekin akort. Beren birbindikagailuaren puntuak hauk dira: Botarikoek berarrartzea, 40 orduetako lan-astea, 30.000 pezetatoko soldata hilean.

Greba honek, atal honen langilegoaren 80 o/oa besarkatzen du, hau da, 3.000 langile inguru. Entrepresa txikiak izan dira lehenak greban hasten, eta esan daiteke, ikastetxe, fabrika etabarretako entrepresetako bidaiak egiteko kontratatuturik zeudenak izan direla erantzunik ugaritsuena eman diotenak grebari. Ahatik, merkatal garraioetan, normalitatea nabarmendu da.

Garraioen Guztiekiko Greba hau, urtarrilaren 21etik TUGBSAkoek daramaten grebari gehitzen zaion kate-begi bat da.

## TARABUSI

Hiruilabetetako greba daramatenez, ebazpideren bat berehala bilatu nahiez, arbitraiazko sistema onhartu dute iragan zortzian. Sistema honek alde biak behar-tzen ditu erabaki bat hartzera.

Baina astearte 9an entpresak ez du onhartzeko arbitraia "ez-prozedentzea" dela esanez.

Esan beharra dago, egun berean, Basauriko Echevarria entpresak greba egin zuela, eta bere babes kaxako dirua 100.000 pzt, Tarabusiko langileei eman zela. Era berean, Echevarriako komisioa zuzendaritzarengana joan zen Tarabusiko arazoan presioa egin dezan ezkatzera. Eta honela gertatuko ez balitz, grebara aterako direla, Tarabusikoekin solidarizaturik. Basauri aldean, Echevarria-z gain beste entpresak hauk ere greba egin dute: Formica, Firestone, Bandas, Guinea, eta Ceplastika-k.

## LAUDIO

### E.N.M.E.S.A.

Enbasegintzan ari den entpresak honetan —zeinaren xantilioia 350 emakume eta 150 gizonen osatzen baitute— 1977.eko Otsailaren 29 larunbatean, asanblada bat ospatu zen ekoizpen primen eta kobratu gabeko gratifikazio batez nitz egiteko.

Heiburua, emakume langileek jasaten duten diskriminazio nabaria eta guztiekiko informaziorik eza ebazpidetan jartzea zen. Erabakiak, Entpresako juraduaren dimisioa, eta langileen asanbladaren ordezkari komisio negoziatzaile bat izendatzea izan ziren. Hileroako ekoizpen primen bantzeko juratuaren erizpideak, hau dira:

—Gizonentzat 100 pta.

—Ofizial Administrazioentzat 875 pta.

—Emakumeentzat 500 pta.

4.779.181etako urteko gratifikazio bat dago kobratu gabe. Juraduak honela egiten du haren banaketa:

—Gizonei 25.000 pta.

—Emakumei 12.519 pta.

Ofizial administrazioari 22.122 pta.

Lan ikasleei 10.400 pta.

Juratuek ez dute dimititzen. Horregatik zuzendaritzak juratuekin heltzeari darraio. Hori ikusirik, komisioak —hau da asanbladaren, eta langileen aldeko ordezkariak— gutun bat eman die langileei. Hauxe da haren laburpena: Sinatzaileek, ENMESA entpresako langileek, juratuaren dimisioa eskatzen dute, ez baitira baliagarri, ez giza moldez ez eta sindikal moldez; dimititzen ez badute, ez dute (sinatzaileek) onhartuko juratuaren negoziabiderik, ez direlako langileen ordezkariak, komisioa baizik. Gutun hau, 230 pertsonak sinatzen dute lantegiko xantilioiaren osokideen artean.

4ean, ostiralek, zuzendariak, bigunago dihardu.

Hurren egunean, larunbatean, baimenik ez zuten arren, asanblada informatzaile bat ospatu zuten. Bertan 85 o/oek parte hartzen dute. Aurreko erabakiei birrespena ematen die, eta negoziatzaileen gutiengo puntuak eztabaidatzeari ematen diote hasiera: igoera linealean eta emakumea ez diskriminatzean oinharriturik. Lan berdinari soldata berdina. Enmesa, Laudion, entpresak garrantzitsua da, gehienak emakumeak direlako eta bertako burruka ordenaz doalako.

ELAK harreman pertsonalak ukan ditu Markotegirekin, Aretako fabrikako nagusiarekin, eta entpresako langileekin ere bai, hauei lanera joateko eta nahikoa lortu dela beiarria esanez. Hau guztiau, jakina pertsona mailan, eta ez gehiagorik.

## VULCANO ESPAÑOLA.—

Mungia entpresak honetan, 24 langile izan dira despedituak, 2.000 pezetatoko altxazia eta soldata extrak egiazko soldataren berdina denfendatzearen.



Ezker aldean, Astilleros Españoles Olabeaga-koa, General Electrica eta Petronor izan ziren geratu zirenak.

Eskuin aldean, Westinghouse, Laurak, Alconza, Redusa Astilleros Celaya, Astilleros Ruiz de Velasco eta Astilleros de Asua-geratu zuten.

Guztitarra, 30.000 pertsona izan ziren iragan 8an greba egin zutenak Tarabusikoekin bat eginda. LAB izan da greban honen deia egin duena, CNT-ek ere apuiatu du.

### LUKE

Mungia-ko Zabalondon dagoen enpresa honetan, —Artetxe sailekoa berau— bertako langileek asanbladan erabakiari jarraituz, Urtarrilaren 26an greba egin zuten. Entrepresak, horregatik, bertako 7 juratuei espedientea ireki diete sindikatoetan. Horri erantzuteko, Mungia-ko Langile Koordinatzaileak horri bat atera dute, sinaturak jasotzeko, juratuen zigorra kentzea eta greba-eskubidea ezartzea eskatuz. Aipagarria da PNV-ko jendeak ez duela ekintza hau apuiatzen.

### POLITIKA

“Gipuzkoa unida” jaio da Otsailaren 1ean. Bederatzi alderdi politikoko jendea bildu da “españolismo”aren inguruan.

### SOZIALISTEN BIRBILTZEA.

Euskal ezkerreko talde abertzale bazu, konbergentzia-bidetan jarri dira Otsailaren hasieran. Partaideen artean, dagoeneko ezker nabaria ozotzen duten talde hauk daude: EHAS (KAS-aren osokidea), Eusko Sozialistak (orain arte FPS-aren osokidea) EKB (euskal komunisten batasuna) eta beste zenbait independente. Birbiltze honeztako inte-

res bizi bat du, ETA-PM-aren bi-koiztetik sortu berria den EIA alderdiak ere.

Konbergentzia hau, Sozial-demokrasiak plazaratzen duen gauza hori baino ezkerreago geratuko litzateke, eta bere ezkerrean, talde troskista eta maoista erradikalak geratuko lirateke.

### GOBERNU BASKOAREN BILERA

Iragan 8an, Baionan bildu zen, kontseilari guztiak bertan zirela, Gobernu Baskoa, bederatzi ordu luzez: Jesus Maria Leizaola (Lehen dakaria), Mikel Isasi (PNV), Jesus Ausin (Izquierda Republicana-koa), Gonzalo Nardiz (ANV) eta Juan Iglesias (PSOE-ren Euzkadi-ko zentral sozialistako komitekoa).

Arreta handia ematen diote preso politikoen egoerari eta benetako amnistia osoari, bide demokratikoa zabal dadin, azken Abenduaren 31ko agirian azaldu zuten.

### EUSKARA ETA KULTURA

#### EUSKALTZAINDIAK...

Euskararen Ofizialkidetasuna eskatzen du. Urtarrilaren 29an, Espainia eta Frantziako estatuen gobernuarengana zuzentzea erabaki zuen Euskaltzaindiak, euskararen ofizialkidetasuna eskatzeko ofizialki.

#### BAZOZELAI-N EUSKARAZ.

Baskonia football ekipoaren zelaietan euskaraz egiten da presentazioa, lehen aldiz. Imitagarria benetan, Baskoniaren jokabidea.

### BERMEO

Otsailaren 6an igandez, hitzaldi bat egon zen Artza frontoioan Euskal Herriko kostaldeko zentral nuklearrei buruz. J.R.Etxe-

barria lagunak eman zuen euskaraz eta Allendek erdaraz. Azkenean Jon Enbeita eta Sardui bertsolariek parte hartu zuten. Bostehun pertsona bildu ziren, eta azkenean elkarrizketa mamitsu bat egon zen, gehiena euskaraz.

Hitzaldian, Lemoizko zentralaren eraikuntzan gertaturiko ez-legezkoak salhatu ziren, eta Allendek, Iberduero gonbidatu zuen, Euskal kosta nuklearraren babes komiteak antolatzen dituenetarik hitzaldiren batetara etor zedin. Bigarren aldiz egiten du Bermeoko komisioak honelako aktu bat, inondiko laguntzarik hartzen ez duen arren.

Esan egin behar da, gainera, alka-teak 10.000 pezetatoko segurantz bat uztera behartu zituztela antolatzaileak, desordenen bat apurketen bat gerta baledi... Bermeoko komisio honek agiri dokumentatu bat egin du, zentral nuklearrei buruz, eta azkenean firmak bildu dira Mungia-ko Udalarai aurkezteko, Lemoiz gelerazi dezan.

### DIMA

Herri honetan ikasgelak behar dira euskara irakasteko. Alkatea da oztopoak ipintzen dituena eskolako gelak horretarako uzterakoan. Legeak, oster, erraztasun handiak ematen ditu horretarako. Zergatik alkatearen legetik kanpoako jokabide hori?

### BILBOKO URIBARRI HAUZATEGIAN

Otsailaren 1rako, Uribarriko Amnistiaren Aldeko Komisioak hitzaldi bat iragarri du arratsaldeko 8etan. Horri bat zabaldu da horretarako eta amnistia eskatzeko, hauzategi honek 5 herbesterratu ditu eta.

# EUSKAL HERRIAN

## ALDERDI POLITIKOEN EUSKARA

Zoritxarrez, aspaldion eskribu gehitxo ikusten dugu euskararen ofizialkidetasunari buruz, gehienak erdara hutsean edota hizkuntza bitan.

Zorionezko harriduraz jaso dugu **Komunisten Batasunak** argitaratu "manifiestotik", "Euskadin zapalketa: Langileriaren eta Herriaren Autodeterminazioaren alde" boletina, 88 horrialde dituela eta oso-osorik euskaraz.

Beste zenbait artikuluren artean, "Euskararen eta gaztelaniaren berdintasunaren alde" deituriko bat, 17 horrialdetako. Exenpluaz irakastea bezalakorik ez dago.

### "AGERKI" SORTU DA

Euskal kultura ukaezinezko zerbait da, eta eragozpen guztien gaineratik bere arte erakustaldietan nabari da.

Herriaren barrutik irtendako arte erakustaldiok, ordea, ez dira oraindik euskal mundu osora heldu.

Jendearentzako agerraldietan azaldu izan den profesionaltasunik eza eta gure jaialdi eta ikusgarrien antolatzaileen koordinatze falta, maiz, artisten, ikuskizunen eta herriaren partaidetasunaren kalterako gertatu izan dira, orain arte.

Arlo honen garrantziaz jabeturik, **AGERKI** sortu da, zure zerbitzutan jartzeko:

- 1.— KANTARIAK
- 2.— JOIKI JATORRAK
- 3.— BERTSOLARIAK
- 4.— TALDEAK ETA ORKHESTRAK
- 5.— FOLKLOREA, DANTZAK
- 6.— THEATROA
- 7.— KORUAK
- 8.— HAURRENTZAKO ARIKETAK
- 9.— PUBLIZITATE ETA

## ZABALKUNDEA.

Eskaitzen dituen Abantailak:

1.— Zerbitzuan jarritako profesionaltasuna.

Gu ikusgarritan profesionariak gara; Euskal Herri osorako ari gara eta zure ondoan gaituzu.

2.— Tramite arintasuna

Artistak bilatu, eratzeko paper nahasteak konpondu, baimenak lortzea etab. ez zaizkizu jadanik buruhauste izanen. Gestio arin eta erosa eskaintzen dizugu.

3.— Gestio osoa.

4.— Kostuen egokitzea.

Aldez aurretik jakinen duzu zure jai eta ikusgarrien prezioa.

5.— Zuretzako teknika zerbitzua.

6.— Ugaritasuna.

Kultur sel-service bat eskaintzen dizugu, tokian tokiko ezaugarriak eta gustuak kontutan harturik.

7.— Bulego bat zure telephonoaren aldamenean.

Deitu eta pertsonalki zuregana joanen gara.

**BILBO.**— 1977.eko Otsailaren 5ean. "COMICOS DE LA LEGUA" S. VICENTEN.

Joandako larunbatean ere, Cómicos de la Legua antzerki taldea azaldu zitzaigun S. Vicente zinetokian, "Vivir por Bilbao" antzerkiarekin.

Nahiz eta agerraldi batzu egin lehen, honetan ere ikusleek erraz bete zuten zinetokiko jazarlekutaria.

Antzerki honi, ikusgarri deritzogu, bi aldetako hutsunea betetzeko asmoduna: bata Bilboko (Euskal Herrikoa ote?) antzerkirik eza, eta bestea bilbotasunari buruzkoa.

Antzerkiak Bilboko historia ttipi

bat izan nahi du, joan den menditik honaino, eta azkenen urteotako udal-kudeatzeari kritika zorrrotzak ugaritu ziren eta, ikuslearen txaloak eta poza aipagarriak ziren, Doña Pilar-en joera eta Oruen eta etxemalleen espekulazioa aurrean ipiniz.

Historia ttipi hauen pertsonaiak, aipatutakoak landa, denetariokoak genituen eta gehienen izen bat ematerakoan, langileria bera zela esango dugu: Triano aldeko meztza langileria eta ugazabak, Barakaldoko etxeoandreak, kanpotar langileak, Bilbo Zaharreko etxe zaharrak, etab. Euskal baserriarra ez zen agertu, baina, behar bada, Comicos de la Legua-ren ustean, geure baserriarrak ez dakigun nungo zeruan bizi ziren edo, edo marxistak onak izanik, langileriaren barruan egoteko merezimendua ez zuten egin baserriarrek.



Atzeagoko aipamenak, barre eragitekoak ziren, ordea: Bilbora etorri zen inglesa, etab., nahiz eta sozial arazoko mamia erne nunnahi (burnidun mendiko jabea etab.).

Kritikalari sartuz gero, hutsune nabaria izan zaigu euskararen ahazmena: edonork uste izan zuen orduko bilbotik hogeita mila kilometrotara zegoela. Benetan ohargarria, antzerkiaren iragarkiak euskaraz-erdaraz ziren, bai.



Eta non euskal arazoa? Abertzale-letasunaren aipamen bakarrak (untzigilea eta Bilbo Zaharreko dendaria, burjes apalak berauk) nahiko urri deritzogu, orduko Bilbon abertzaleek (PNV eta) politik indar nagusienetariko bat izanik. Elizari irri bat edo ere ageri zen.

Historia alboan utzirik, antzerkia arinegia zen alde batzutan, lasaigo besteetan; barregarria hasieran, garrantza azkenean (Tarabusiko agiri bat irakurtzea eta guzti amaiean): ba dagoz beraz, eten-toki batzu antzerkian zehar. Tresna igikuntza, bikaina, azkarrak: eskena arront batetik, irudimenezko eskena batera iragan zen esate batetan), gaurko antzerki erakoa benetan. Mimika ona, lar ugari gutxitan.



### MANIFESTALDIAK ETABAR.

**SONDIKA.**— Igande 30ean manifestazio bat egin zen Sondikan, Amnistiaren eskakizuna apuiaz. Herriak honelako kontsignak oihukatu zituen: PRESOK KALERA, ZAKURRAK BARRURA,... ASKATASUNA.

**BILBO.**— Basauriko industri eskolako 500 ikasletik gora manifestatu ziren hile honen 8an,

Carmelo Arteta bertako eskola industrialeko zuzendariaren dimisioa eskatuz. Arrazoiak bi ikaslerengan dauden espedienteak altxatzea eta irakaskuntzaren hobetzea dira.

**ATENTATU BAT MUNGIAN.**— Otsailaren 5ean Mungiako ALKARTASUNA klubari su eman zioten, bertako liburu, aulki eta mahai guztiak erre. Esannahi asko duen puntu bat esan behar da, aldizkari baten horri bat ez zela erre, eta bertan hau irakur zitekeela: DERECHA SALVAJE.

**SANTUTXUKO IKASTOLAN.**— Hil honen zortzian, EGB-ko azken mailetak 60 haurrek greba egin zuten, "ongi pentsatu ondoren" —beren hitzak dira—, Tarabusiko langileekin bat egin nahiz.

### GALERAZPENAK

**ESKORIATZA.**— Eneko otegi, Eskoriatzako bere etxean zegoela, detentua izan da urtarrilaren 30ean gaueko 10etan. Donostian bide dago.

Hiru urte dela, Hondarribiako tiroteo baten ondoren, Iparraldean babespetu zen eta hantxe egon da orain bost hilabetetara arte. Galerazpenaren arrazoiak, Enekok Eguberrietan Eskoriatzako meeting batetan parte hartzea dateke.

**IRUINEAN, PATXI ZABALETA.**— Otsailaren 1ean goizeko 11'30etan, Patxi Zabaleta detentua dute Iruineako bere bulegoan. Astelehen gauean, bere bila joan zen polizia, baina etxean aurkitu ez zuenez, gaur gertatu da haren galerazpena.

Gaur arratsaldean irten da —hau da, egun berean— komisaldegitik. Itaunketa, galdeotan oinharritu da: Talde militarrekiko harremanak; KAS-ek dituen harremanak ezkerreko talde estatalistekin; eta EHAS-en egitura.

**AITOR ARGARATE.**— Urtarrilaren 25ean Berangon detentua zuten, beste batekin zihoala. Besteak, antza, ihes egin ahal izan zuten.

Elgoibarko 20 urtetako mutil hau Bilboko Zientzi Fakultateko euskararen arduraduna da.

Lege berriaren erretroaktibitateaz, ez dute askatuko oraingo, antza, ikasleek horretarako presioa egiten ari diren arren.

**BASAURI.**— Pedro Maria Martinez, Jose Ignazio Aramaio, Patxi Arana, Santiago Marco eta Jose Bizente Daroca, 54 egun egon ondoren "ihes eginik" kartzelan bertan aurkitu dituzte inspektzio arrunt bat egitean, Urtarrilaren 31n, eta orain zigor geletan daude.

Beren gogoak, antza denez, amnistia-riaren zain bertan geratzea izan da.

**LAS CARRERAS.**— Abanto-Zierbana-ko hauzategi honetan, eta manifestaldi baten ondoren, bertako langileak diren Karlos Alfonsito Abaskal eta Milagros Pereira, eta Rolando Gonzalez ikaslea galera zituzten, eta beren etxeak ongi arakatu. Ez dakitzagu oraindik galerazpenen arrazoiak.

Manifestaldian 300 bat pertsonak hartu zuten parte, eta azken egunotako galerazpenei protesta egiteko egin zen.

# BAZKALONDOKO LAGUNIK ONENA



Ondo bazkaldu ondoren, ba dakigu zer... Ba dau-  
de, egon, paper sofisticatuagoak, kolorezkoak, usain  
onekoak, etab. Gure ustez horik guztiok koplakeriak dira.  
Egiaz behar dena hauxe da: paper on bat, tolestu beharrik  
ez duena, eskuan nekez apurtzekoa eta problemarik gabe  
garbitzen duena. Eta, gainera, iraunkor eta merkea.

## "EL ELEFANTE"

Betidanikoa, luzeena eta merkeena duzu.



# OIHU BAT: kalera

Gabonak iragan dira. Itxaropena susmatzen zen. Gabonak joan dira.

Gabon hauetan gure herria bezala, preso segitu dugu. Hamazortzi euskaldun abertzalek hemen iragan ditugu egun horik. Festa hauek ikasbide sakona eskaini digutelakoan gaude. Erakutsi digute ez luzarotan egotea, alderantziz etengabeko burruka egitea baino. Franco zenaren diktadura zapaltzaileak berrogei urte iraun du, baina ez du irteera errazik. Herriarekin aurrez aurre topo egin du, Euskal Herria bereziki, bere langileria aurren duelarik.

Herriaren gain ezartzen zen bortxaketa odol-eztatu eta instituzionalizatuari, herriak halaber bortxaz hainbat alditan erantzun dio faxismoari; eskubide osoz, bere eskubide minimoak, langileen eskakizun minimoak, apurtuak eta lur jota aurkitzen baitziren.

Diktadurak alor batzutan amore ematea, herriaren ekintza bateratuak lortzen ditu. Oligarkiaren zaintzaile direnak egoera irtengaitz hori ikusiz eta halaber Europa aurrean aurpegi xurikatu bat agertu nahirik, hauxe bururatu zaie: "Guk nahi duguna iraunkorra bilaka dadin, alda dezagun larrua (itxuraz bederen)". Beraiek asmatu eta proposaturiko demokrazia baterantz bultzatu nahi gaituzte, beraien erritmo eta arauera garraiaraziz, herria kanpoan geratzen delarik, partaide ez izanik. Euskal Herrian une honetan ezartzen den errepresio latza lekuko, Euskal Herriak jasaten dituen nazio eta sozial eskubideen zapalketak gauza berbera adierazten digu.

Herriak eta Euskal Herria bereziki, antolaketa hau onhartzeko ez duela garbi nabari da.

Demokraziaren haizeak ez ditu gartzelak ere ukitu. Egoera hoberik ez da inondik agertzen, alderantziz, azken urte hauetan gartzeletako egoera erabat gaizkoagoturik dago: kontaktak ugaritu, inferniloak debekatu, zentsura gogortu (Garaia, P.H.de Euskal Herria, Berriak... debekatu) higienik eza (arratoiak patioetan, jantokietan...), gure familiekin euskara debekatu (bai eskutitz, bai elkar hizketan), "trasladuez" ez gaituzte abisatzen... gure buruak deshumanizatzen ahalegintzen dira.

Hemen barruan beste mundu batetan bizi garela ("kanpoa" da gure hitza kaleaz mintzatzean, "han goia" Euskal Herriaz mintzatzean...) fami-

lietatik urrun aurkitzen garela, gurasoak sartzen ari zaizkigula, gurasoei beren haurrak ikusten uzten ez dietela eta lehen aipaturiko okerra kontutan harturik seriozki kolpekatzen gaitu bizimodu honek. Francoren une bizkorrenetan bezala, edo okerrago aurkitzen gara.

Eta hau guztiau, Herriaren eta langileen eskubide zapaldu eta ukatuen egoera hau aldatu nahi izan dugulako. Herriaren eta langileen alde burrukatzeagatik, euskal langile bezala geure nortasuna finkatu nahi genuelako eta nahi dugulako.

Amnistia oihu garraisi ozen bat bihurtu da Euskal Herrian gaur. Gobernuak ez du amnistiarik eman nahi, ez dute "etena" maite; hauxe baita amnistia: etena, ez barkamena, ez gobernuaren esku zabalaren adierazpen bat. Amnistia lorpen politiko bat bihurtu da, holaxe bihurtu zaio herriari. Herriak ondo ulertu ditu amnistiarik gabeko hitzak eta promesak, horixek direla: hitz hutsak.

Amnistia: Demokraziarantz abiatzeko osatuko duen lehen pausoa, lehena bakarrik, adierazpen bat soilik, Amnstiaren erabakia kaleratzean, gobernuak, maila batetan, alor batetan, amore eman duelako seinalea da.

Herriak eskuratuko duena eta ez gobernuak eskainiko duena. Preso politikoen artean zenbait zatiketa eta bereizketa egitea, berriro eta bortizki ere salatu nahi dugu. Hor daude haien "terroristak" eta "odol deliktuak" beste batzuren artean.

"Odol deliktuak" direla eta, orain dela gutti Fragak hauxe esan zuen: "Eskuak odoleztaturik dituztenak ez dute inondik ere barkamenik ukamen"

Onorioa: Duela hamabost egun Jurramendiko hilketan partaide zirenetako bi, Ferrol eta Irui-neko gartzeletatik irten dira. Hauek ez dute amnistia baten beharrik ukan.

Dirudienez, berrogeitahamarren bat barruan uztea gobernuak dituen asmoak salatzen ditugu bortizki, "baza politiko" bat bakarrik jokatu nahirik, amnstiaren sentidua behin eta berriro nahasteraziz. Herriak amnistia oso baten alde daraman burruka agurtzen dugu eta bat egiten dugu. Herriak eta beraien burrukak kaleratuko gaitu eta halaber Euskal Herriaren eta langileen eskubide osoak onhartzeko dituen prozesuaren aurre urratsaren oinharria izanen da.

## MATIKOREN HILTZEA



25 urte zituen Matikok, Urtarrilaren 23an, igande arratsaldeko 9,30etan, Armintzako portu bazterreko espigoi batetik erori zenean.

Gregorio Martikorenak (lagunok "Matiko" deitzen genuen) nahiko izan zuen, arratsaldeko ordu ilun hartan, deskuido harrigarri batez heriotzara joatea. Inork ezin zuen momentu hartan arrazoirik topatu; ezin zitekeen. Eta txarrago zena, argirik gabeko toki ihunean, bera olatu artean burua argi zeukala, azkeneko hitz erdiei erantzunik eman ezinez. Itsakoak gogor erasotzen zuelarik, ez zegoen inondik laguntzeko biderik: sokarik ez, itsaso amorratua, metrotako olatoak... Laster izango zen gorpu Matiko. Inork ez zuen sinetsi nahi. Bonberuak eta herriko arrantzaleak ibili ziren ondoren gorputza topatzen, baina alferrik dena. Itsasoa nagusi. Berak jan zuen.

Galdakaon, 27 goizean funerala eman zen, berak herri honetako Institutuan euskarazko eskolak ematen hasia baitzen.

Orain 25 urte, Nafarroako Pio Barojaren herrian jaioa eta artzain baten semea. Estudioz abokatua, karrera Deustuan egina. Gazte burrukalaria, euskal kultur arloan arras ezaguna Bilbo aldean, bereziki euskara arloan eginiko lanengatik. Hainbat eta hainbat eskola emana, bera.

## BERRI KUTSATUAK ETA ASEPSIA

Informabideak dira gertakarien berri jakiteko bide arruntak, eta maiz, gure erizpideak mamitzen dituztenak. Urte batzu direla, egunkariak, irriatiak, telebistak aipatu dituzten gertakari guztiak, epitotoz kutsaturik agertzen ziren. Batzu "llamadoak" dira, beste batzu "asesinoak", beste batzu "bikruciferoak"; "nacional", "separatista", "desalmado" eta beste asko agertzen ziren. Informakera hark bere eragina ukan zuen. Eta eragin hark, oraino bizirik dirau; eta ba dirudi ez dela aski demokraziaurre honetan, epitotook ez erabiltzea. Kontraepitotoak erabili behar dira aldi honetan behintzat, gauzak bere lekuan ipintzeko.

Egia da, neuk ikusi dudalako.

Iragan 18an, Bilbon, "E" minibusean nindoala, emakume bat sartu zen eta nire aurreko jarlekuan eseri zen, beste emakume baten ondoan. Azken honek, ume bat zeraman bere altzoan. Geroko konturnatu nintzenez, emakume sarberriak Amnistiaren

aldeko eranskailu bat zeraman. Alboko umeak ikusi egin zion eta bere amari galdetu (erdaraz): —"Zer esan nahi du andre horrek daraman eranskailu horrek?" Eta amak erantzun zion, ahots ozenez: —"Ba, andre horrek asesino bat daukala gartzelan". Umetxoak ez zion gehiagorik galdetu; ulertu zuen, antza, amaren azalpena. (Ume horri norbaitek esan dio, asesino bat preso bat dela). Denok begiratu genuen harantz, erantzunaz harriturik. Eranskailudunak ez zuen ezer esan, zuri-zuri geratu zen.

Asepsia gehiegi.

Zer den asesinoa —erhalea agian— argi azaldu behar litzateke. Preso politikoak, herri osoarenak direla. Amnistia, herri osoaren exigentzia nabaria dela. Gure presoak ezereen erhaleak izatekotan, faxismoarenak direla. Minibuseko emakume hori faxista bat dela, etab. Honelako berri deskutsatzailak ez dira agertzen. Eta gauzak bere lekuan ipintzeko ongi letozke.





OTSAILAK 4.:

# ikurrinak kaleetan zehar



Santutxuko Agate deunaren taldeak bere ibiladia amaitu zuenean, hauzo honetako plazan bildu eta zuhaitz batetan ipinitako ikurrin baten aurrean egin zituzten azken kantak.

Agate Deunaren egunean Euskal Herriko kaletatik zehar ibili ziren kantari talde gehienek ikurrinean babesia izan duten aurten. Ikurrinaren onhartzea "hauteskunde bidez" aukeratu behar dela dioten hatz-alkateek behin eta berriro ikurrinaren onhartzearen frogak dituzte. Herriak gero eta gehiago erabiltzen duen ikurrinak ez du hauteskunde berezirik behar. Agate deunaren egunean herriak bere ikurrinaren alde bere botoak birreman zituen. Horrialde honetan egun hortan egindako foto batzu. Ez dute hitz gehiagorik behar.

# Emakumezkoaren Zazpi Problema

**P**ROBLEMA:  
Behin baino gehiagotan,  
behar nuena ezin erosi izan  
dut nahiko dirurik ez  
neramalako.  
llevar suficiente dinero.

**P**ROBLEMA:  
Ni ez nagoenean, etxera  
errezibua sarri etortzen dira.  
Berauk ordaintzera joatean  
denbora alferrik galtzen dut.

**P**ROBLEMA:  
Batzutan, opariak ongi  
aukeratzea ez da erraza izaten.

**P**ROBLEMA:  
Oporretan edo eta  
bidaietan nagoenean,  
daramadan dirua galdu edo  
lapurtuko ote didaten beldurrez  
egoten naiz.

**P**ROBLEMA:  
Aldean dirua eraman behar  
izatea ez da erosoa izaten.  
Lasaia nengoke hura eraman  
beharrik ez banu.

**P**ROBLEMA:  
Batzutan, neure  
aurrezkietatik diru gehiago  
atera nezakeela pentsatzen dut.  
Irabazi eta laguntasun  
haundiagoak edo.

**P**ROBLEMA:  
Diru kontutan, maiz, ez  
dakit zer egin, eta urduri  
ibiltzen naiz. Kontseiluak behar  
nituzke, pertsona adituekin  
elkarrizketan aritu, gehien  
komerziak zaidana esan  
dizadaten.

**S**OLUZIOA:  
Hemendik aurrera, dirurik  
gabe, nahi duzun guztia eros  
dezakezu gure Kreditxartezez.  
Dohaineoak dira, eta zuk,  
zeure etxetik, erosketa egin  
eta handik hilabete t'erdi  
geroago ordainduko duzu.  
Eta, nahi izanez gero, ordaina  
zenbait hilabetez atzera  
dezakezu.

**S**OLUZIOA:  
Guk ordainduko ditugu.  
Gero etxera bidaliko dizkizugu.  
Zeure kontuak nola doazen ere  
zehatz-mehatz azalduko  
dizugu, gainera. Eta dena,  
jakina, dohainik.

**S**OLUZIOA:  
Soluziorik erraz eta  
egokiena Banco de Bilbao-ren  
Txeki Erregalua duzu.  
Horrelako bat bidaltzen diozun  
pertsonak, berak behar edo  
nahiago duena eros dezakeelako.  
Eta dohainik duzu.

**S**OLUZIOA:  
Banco de Bilbao-ren Bidai  
Txekiak erabil itzazu.  
Zeure diruaren orde (galdu edo  
lapurtua gerta daitekeena)  
1.000, 2.500 eta 5.000  
pezetako txartel berezi batzu  
emango dizkizugu, eta, berak  
galdu edo lapurtuak izan  
arren, zuk, horregatik, ez duzu  
inolako problemarik izango.

**S**OLUZIOA:  
Zuk zeuk, nahi duzun dirua,  
gutti zein asko izan, txeki  
batetan zeure firma eta  
zenbatasuna ezarri gero,  
ordain dezakezu. Horretarako  
aski duzu kontu ireki bat  
izateaz. Dohainik da. Eta guk,  
halaber dohainik, zure  
diruaren kontaduria  
eramango dugu.

**S**OLUZIOA:  
Geure esperientzia eta  
kontseilua eskaintzeko prest  
gaituzu. Horrela, zuk,  
Aurrezki Libreta baten bidez,  
ahalik eta interes handienak  
lortuko dituzu. Edo eta, banku  
bat garen aldetik, dauzkagun  
eta eskaini nahi dizkizugun  
beste ideia askoren bidez.

**S**OLUZIOA:  
Diru kontutan ditugun  
ezaupide guztiak zure  
zerbitzuan jartzen ditugu,  
horrela zu lagundua eta ongi  
kontseilatua sentiti zaitezten.  
Irabazi haundiagoak izango  
dituzte eta, problemak baztertu  
zirela, arazoak erabat  
konponduko dira.

# Banco de Bilbao-ren Zazpi Soluzio

Gaur egun, emakumeak bere bankus du.

Kontua ez da ezberdintasunak sortzea,  
berdintasuna lortzea baizik.



BANCO DE BILBAO



# GORA EUSKADI IRASIA!

Euskaltzaindiaren azken bileran batzorde bat sortu zen, "herri euskara" bideratzeko. Zer da "herri euskara"? Egunero eta gure harreman arruntetan erabiltzen duguna. Jakina da gure harreman arrunt eta egunoroko horietan oinharri-oinharrizko hizkera bakarrik erabiltzen dugula: Aditz formarik errazenak, hitz morderak bat bakarrik eta beti berdintsuak, esaldi oso motzak eta zuzenekoak.



Milaka asko ari dira une honetan Euskal Herrian euskara ikasten lagun helduak, eskolatik aspaldi ibiliak beharbada, lantegietan izerdi ugari emanak sarritan. Beharrezkoa da jende guzti hauk euskaraz egiten jartzea, Euskal Herria euskaldunduko badugu. Horretarako "herri euskara" hori ikastea nahikoa dute. Euskaltzainditik sortu berria den Batzordeak oinharri-oinharrizko euskara hori zein den aztertu beharko du, eta hori ikasteko eta kaleratzeko bideak ireki beharko ditu: ikasliburu errazak, euskara erraz horretaz idatziriko aldizkariak, etab.

Urtarrilaren azken egunean, Lejoako Unibertsitatean mahainguru bat egin zen: Unibertsitarien (ikasle eta irakasleen) aurre-

an Natur Zientziak. Hiztegia eta JAKIN Aldizkaria aurkeztu ziren. Aurrena Jakin Taldeak argitaratu zuen orain dela hilabete gutxi; bigarrena berriz, egun hauetan kaleratu da, urtetan ixilik egon ondoren. Euskal Unibertsitatea eta Euskara erabili zen gai bezala mahainguruan. Izan ere, bai Hiztegiak eta bai Aldizkariak arazo berbera ipintzen dute aurrez-aurre: Euskal Unibertsitaterako landu eta ikasi beharreko euskararena. Ez da "herri euskara" hura, eta bai gaurko zientzia modernoek eskatzen duten hizkera tekniko eta espezialdua.

Edozein hizkuntzak maila asko du; euskarak ere bai. Eta hiru urteko haurrak erabiltzen duen euskara, edota langileak lantegian edo kalean erabiltzen

duen euskara, edota astekari batetan kazetariak erabiltzen duena, edota mediku batek medikuntzazko astealdi batetan erabiltzen duena: guzti hauk hizkuntzaren maila desberdinak dira. Ez dago bata bestearekin nahasterik. Eta ez dago euskara ikasten hasi den bati, Unibertsitateko irakasleak erabiltzen duen euskara irakasterik.

Guzti honek beste hura gogoratzen dit: Xabier Kintanak eta Joseba Tobarek liburu oso aipagarri bat kaleratu zuten lehenengo urtean: "Euskaldun Berriekin euskaraz" zuen titulua. Liburuaren sarreran euskara ikasi beharraz berba egiten zuten; eta nahiago zutela "euskaldun ikasia" esatea, "euskaldun berria" baino.

# EUSKAL HERRIAN



Euskara Unibertsitateko mailatera heldu berria dugu. Euskadi ikasi batetara heltzeko lehen urratsak egiten ari gara gaur egun.



Gauza berbera dio Imanol Berriatuak, Israeletik etorri ondoren, ANAITASUNA honetan argitaratuaren artikuluetan.

Euskalduntzen ikasten ari direnak, Alfabetatzen ikasten ari direnak, Euskara batua zertan den ikasten ari direnak, Natur Zientziak. Hiztegia ikasten ari direnak: denok maila desberdinetan euskara ikasten ari gara. Euskara ikasten ari da Euskal Herri "osoa": guztiok gara euskaldun "berriak", euskaldun "ikasiak" garen neurrian.

Euskara ikasteko eta irakasteko politika oso baten premia dugu. Helburua Euskal Herria euskalduntzea da: honek markatuko du politika horren estrategia. Baina nonbait beti ez gaude ados taktikari buruz.

Batenbati —oso gutiri, hala ere— entzun izan diogu: Zertarako une honetan zientzi mailako hiztegia eta euskara lantzen indarrak eman, euskaldunen artean 80 o/o lagunek euskara haseratik ikasteko baldin ba-

dauka? Zertarako "Natur Zientziak. Hiztegia" eta horrelakoak lantzen saia, "euskalduntzen" ari diren milaka lagunei erantzun egokirik eman ezinean gabiltzan bitartean? Edota Euskaldun gehienak "alfabetatu" beharrean gauden bitartean?

Euskalduntzeak eta alfabetatzek maila asko ditu. Euskaldun bakoitza, esan edo idatzi nahi duen guztia esateko edo idazteko gauza ez den bitartean, ez dugu amaitu euskalduntzea ez alfabetatzea. Edozein euskaldunek bere kultura eta jakitate osoa, bere sentipen guztiak, hitzez eta idatziz (euskaraz) adierazteko gauza izan behar du, euskaldun ikasia izango baldin bada. Herri baten kultura lantzen den neurrian, kultur hori adierazteko hizkuntza landu behar da; eta bakoitza kulturaz janzten den neurrian, hizkuntzaz ere janzten da: euskalduna euskaraz.

Zientzia modernoek eta zailenak ikasten edo irakasten ari den euskaldunak, bere burua eus-

kaldun ikasiz hartuko baldin bada, zientzia horik euskaraz ikasteko edo irakasteko gauza izan behar du.

Honek zera esan nahi du: euskalduntzearen eta alfabetatzearen bidea etenik gabea dela, bai herriarentzat bai norberarentzat: oinharri-oinharritik hasi eta gailur-gailurreraino. Eta bidea etenik gabea baldin bada, bide hori egiteko politikak ere etenik gabea izan beharko du.

Gaurregun "Euskalduntzea" eta "Alfabetatzea" fenomeno nagusiak dira Euskal Herrian. Horiakin batera ikastola ere bai. "Euskalduntzea"ren bideak bizkortzeko eta zuzentzeko sortu du Euskaltzaindiak Batzorde berria. Baina euskal Unibertsitatearen arazoa ere bizi-bizia dugu; eta eskabide nagusia dugu gaurko euskal kultur indar guztien artean.

Euskalduntzea, alfabetatzea, ikastola, lizeoa, Unibertsitatea: Euskararen eta euskal kulturaren politika berberetan bildu behar dira guztiak. Eta lehen laurak (euskalduntzea, alfabetatzea, ikastola, lizeoa) bideratuta dauden bezala, ordua da Unibertsitate mailako euskara lantzeko eta unibertsitariak alfabetatzeko. Euskal unibertsitari asko dago euskaraz tutik ez dakienik: lehen mailako euskalduntzetik edo alfabetatzetik hasi beharko du. Baina euskal unibertsitari dexente dago euskaraz mintzatzen eta idazten dakienik, baina berak ikasten edo irakasten duen zientzi alorra euskaraz erabiltzeko gauza ez dena. Hauentzat "Alfabetatze" espezialdu bat antolatu beharra dago: berauen zientziaren eta kulturaren mailako alfabetatzea.

Ez dut uste arazo hau gerorako uzterik dagoenik, Euskal Unibertsitatearen arazoa gerorako uzterik ez dagoelako. Eta zalantzarik ez dago: Euskal Unibertsitatea nahi baldin badugu, euskal unibertsitari "alfabetatuak" behar ditugu, euskaldun "ikasiak" behar ditugu Unibertsitatean.

Paulo Agirrebaltzategi

# anaitasuna ren komikia



## AKO




Irudiak: Antton Olariagak  
Gidoiak: Xabier Kintanak



# 2000

**bilbon gaude  
2007 urtean**





Irudiak: Erramon Zumalabek  
Gidoiak: Xabier Kintanak

SEGITZEKO

# Kriske eta Popolo

Irudiak: Juan Karlos Egillorrek  
Gidoiak: Borja Barandiaranek







# aurrerantz gogor ekin,



Aldizkariaren arabaren  
argazkia

## JAKIN, AURRERANTZ GOGOR EKIN

Pozik hartu dut JAKIN aldizkariaren lehen zenbakia (bigarren aldiko lehena esan nahi dut).

Gaur egun indar berriz agertzen bazaigu ere, badakigu, jakin, 1956.eko udazkenean sortu zela JAKIN. Bizi, 1969. urterarte bizi izan zen aldizkari bezala. Baina urte horretan, agerturiko idazlan batzurenatik, orduko gobernariak lege babesa kendu zioten. Eta orain, 1977. urtearen haseran, berriro plazara zaigu. Ongi etorria dadila!

### JAKIN-EN HELBURUAK

Zer eta zertarako da JAKIN? Editorialean azalzen denez, JAKIN kultur aldizkaria da, euskal kultur aldizkaria. kultura zentzu nahiko zabalean harturik: Soziologia, ekonomia, zuzena, filosofia, erlijioa, zientzia, literatura eta abar erabiliko ditu gai bezala; eta gaiok seriooki eta sakonki aztertu nahi ditu.

Zenbait arazoren azterketa sakonak egiteko, ba dirudi zenbaki monografikoak prestatuko dituztela. Eta horrela, lehen zenbaki hau Euskal Unibertsitateari buruz prestatua izan da. Euskal Unibertsitateari buruzko zortzi artikulu interesgarri dakartzta, adin eta eritzi desberdinetako pertsonak eginak.

Zenbaki honen sarrera gisa idatzi duten artikuluan, JAKINEkoek Unibertsitateari begira duten eritzi eta jarrera adierazten dute. Eta guztiontzat interesgarri delakoan, sarrera horretako zati bat agertuko dizuet. Honela dio:

“Badakigu, benetakoa euskal Unibertsitatea eman ez zaigula emango; guk geuk prestatu eta eskuratu beharko dugu. Gehienik emango digutena ere, nolabaiteko euskal unibertsital barrutia izango da: orain arte ukatu digutena hau ere. Euskal Unibertsitatea, unibertsital barrutia baino oso haruntzago doala uste dugu.

Euskal Herriak, ikastola ez du eskatu, lortu egin du: euskal unibertsitatea ere lortu egingo du. Berak sortu beharko du; eta horretarako bideak urratu: ahaleginez, etengabeko lanez, makurtu ezineko erabakiz, burruka luzez”.

### ARTIKULU IRAKURGARRI BAT

“Irlandaren paraderoa” izenarekin, J. Azurmendiren artikulu mamitsu bat dator zenbaki berean, duen aktualitateagatik bereziki komentatu nahi dudana. Bertan, Irlandaren azken urteotako historia aztertzen da, bide batez, euskaldunok ditugun arrisku batzuri buruzko ohar paraleloak egiten zaizkigularik.

Artikulu horretan aipatzen diren puntuetariko batek erabat kezkatuik nauka, eta, prezeski esateko, “euskararik nahi eta behar ez duten abertzaleena” da. Azken ANAITASUNAN oso ironikoki eta arkaikoki agertzen da arazo hau parabola baten bidez:

“Euscara iqhassi nahi ez duelaco, erdara berce ric eguiten ez duenac, aldiz, abertçale icenaz estali nahi baduçue ere, eguiaz espaignolista legez dihardu, ceren nor bere mintçairaren arauera baita eçagun nongoa den”.

Eta kasu hau —euskara behar eta nahi ez duten “abertzaleena”— benetakoa da gaur egun, negargarria bada ere. Eta zergatik gertatzen da? Ene ustez —Azurmendik dioen bezala— hizkuntz politikako oportunitismoa da hori. Honela mintzatzen zaigu artikulu horretan: “Resistentzian, zapalketa garaian, ez da gehiegi insistitu nahi izaten hizkuntzaren arloan, galdua dutenak ez ikaratzeko. Ahalik eta jende gehienak inguratzearen, kontzesioak egiten dira...” “Askatasuna lortutakoan aisa konponduko dugu hori”. Eta hizkuntzaren arloa, askatu eta gerorako uzten da. “Errealista izan behar da”, esango dizute.

Bitartean, nazio hizkuntzaren ederraz eta zorigaitzaz mintzatuko zaizkizu. Oker guztien errua norena den salatuko dizute. Zapaltzaileengandik beti esijitzen arituko dira “Eta berek zer egiten dute?”.

Hizkuntza baten alde ateratzea —euskararen alde gure kasuan— gauza erradikala dela uste dut. Alde ez dagoena, aurka dagoke. Baina jarrera erra-

# EUSKAL HERRIAN

dikal hori gure helburua —Euskal Herri euskalduna— lortzeko bide bakarra dateke —bestela, Irlandaren kasua azter—. Eta helburu hori lortuko dugulako esperantzan hartzen dugu jarrera hori. Kontsekuenteki ez jokatzea, esperantza hori galdua dutenen kasuan ulertzen dut soilik. Hori ote da “abertzale” erdartzaleen kasua?.

Goiko hitz hauk oraingo jokabide batzurekin lotu nahi ditut. Aspaldi aipatua da, Euskal Herriko aldizkari sasibilingueek euskarari egin diezaioketen kaltea. Haseran, euskarari hainbeste garrantzi emanen ziotela, euskararen aldeko zirela, ...esan zuten. Hitz hutsak. Zer geratzen zaio praktikan euskarari aldizkari horietan? Ia ezer ez. Eta bestela, azter itzazue azken GARAIA, BERRIAK eta PUNTO y HORA. Bide horretan barrena, Euskal Herriko kultura erdal itsasora bultzatzen delakoan nago.

Entzuna dugu, oraintsu, EGIN izenez sortzeko den egunkariak, euskarari hainbat leku emanen diola. Eskari bat eginen nieke egunkari horren arduradunei, hauxe halegia, lehenik egin dezatela eta gero zenbat eta zer kalitateko lekua ematen dioten konta diezagutela, zeren eta nik neuk behintzat, fruituetan ezagutzen baitut arbola.

## JAKIN EUSKAL KULTURA LANTZEN

JAKIN aldizkariak, ordea, zintzoki jokatu nahi du. Bide gogorrago, beharbada apalago(?) eta dudarik gabe zailagoa hartuz, JAKINEk Euskal Herri euskaldunaren esperantza ba duela frogatzen digu.

Horrekin loturik, ba da beste puntu bat. Sarri entzun dugu euskal kultura haurtzaroan dagoela. Haurtzaroan egoteak alderdi desberdinak ditu. Batetik, ene ikuspuntutik ikusiz, ona da, zeren eta haurtzaroan dagoena helduarora hel baitateke. Eta horren esperantza ba dut. Baina, bestalde, egiteko dagoela, egia bihur daitekeen baina osorik ez den zerbait dela esan nahi du. Eta guk egiten ez badugu, nork eginen digu?.

JAKINEk kontzientzia hori du eta ba daki, euskal kultura geuk egin behar dugula, geuk landu behar dugula. Eta, errealista izanik, etorkizunean euskal kultura heldua uka nahi badugu, oraindik —geroro gero miresgarri eta zoragarri baten zain egon gabe— sortu eta landu behar dugula kontsideratzen du eta praktikara eramaten. Eta euskal kultura lantzearen bidetik abiatu da gogorki, zintzoki, firmoki: Bide horretan, zer esanik ez, euskaldun guztion laguntza behar du, guztion artean biharko Euskal Herri benetan euskalduna egin ahal dezagun

Bukatzeko, Ibon Sarasolaren hitzak hartuz, JAKIN euskaldun kultoen aldizkaria izanen dela uste dut. Gehiago oraindik, ez dut errazki euskaldun kultotzat hartuko, bertan agertzen den kultur maila lortzen edo lortzeko ahaleginetan ez dagoenik. Eta gogorra izan arren, Euskal Herrian gizon kultotzat hartua izateko zenbait baldintza euskaldun jartzeko ordua, heldua dela uste dut.

J.R. Etxebarria



Mahainguruaren argazkia

## NATUR ZIENTZIAK

### HIZTEGIAREN AURKEZPENA LEJOAKO UNIBERTSITATEAN.

Urtarrilaren 31n, Lejoako Unibertsitatean, eta ZEKT delakoak antolaturik, “Natur Zientziak” hiztegiaren aurkezpena egiteko mahainguru bat muntatu zen. Hiztegia Arantzadi eta Jakin taldeek eginik dago, eta esan zigutenez, egiten ari diren beste hiztegi batzuren arteko lehena da. Euskal Kulturaren arloan hiztegi hau oso garrantzitsuak izanen dira, zeren orain arte maila honetan euskaraz ia deus ere ez baitago eginik. Hiztegi hau, eta etorriko direnak, euskal mundua eta unibertsital mundua elkartzeko bide bat izan daitezke.

Mahainguru bi partetan egin zen. Lehen partean mahaian zeudenek —P.Agirrebaltzategi, M.Aizpuru, J.R.Etxebarria, J.M.Torrealdai, eta M.Zalbide— hitzaldi labur batzu egin zituzten. Hiztegiaren aurkezpenaren aitzakiaz gai asko ukitu ziren, Jakin aldizkariaren berragerpena, euskal unibertsitatea eta, batez ere, euskal kultura maila guztietan.

Azkenean, mahaikoen eta bildu ginenon —ehunetik gora— arteko elkar hizketa bat egin zen, eta bertan hauxe nabari izan zen bereziki: euskal kultura lantzeko eta euskal unibertsitatea lortzeko, euskaldunok lan asko egin behar dugula. Orain arte euskaldunok dugun euskal kulturaren faltaren errua, sarritan, errepresioari eta zapaltzaileei bota zaio. Eta horiek duten erruaren parte gutietsi gabe, ahantzi ezin dezakeguna, zera da, euskaldunok euskal kultura sendoa nahi badugu, geuk egin beharko dugula.

Itziar Urretxa

# MEDIKUNTZA SENDATZAILEA



Kontsultageletan, jende ilara ikaragarriak.

Denok dakizue, gutti gorabehera, gure Herrian medikuntza sendatzailea nola antolaturik dagoen. Eskematikoki esanda, lau maila hauetan betetzen da funtzio hori: 1.—Medikuntza generaleko edo oheburuko medikuen bidez. 2.—Mediku berezitzuez. 3.—Urgentzi medikuez. 4.—Ospitalen bidez. Banan banan aztertu nahi ditut lau mailok, mundu bakoitzak nolakoa den ikus dezazuen. Artikulu honetan lehen maila biak aztertuko ditut soilik.

## OHEBURUKO MEDIKUAK

Medikuntza Generalean ari diren mediku hauek pare bat ordu ematen dute Asegurantzia Sozialeko Kontsultageletan, eta hori bai herri ttikietan zein hirietan. Hortik aparte, eguneroko kasuak ikusi behar dituzte, etxeetara joanez.

Legez, horrelako mediku bakoitzak 700 pertsonatako kupoa baino ezin dezake eduki; baina, errealitatean, askok bi edo hiru kuporen ardura dute, 1000 edo 2000 pertsonaren medikuak bihurtuz.

Praktikan, denok ikusten duzue, ezen bertara doan jendea dexente samar ikusteko eta aztertze-ko, ordubeteko kontsulta aski ez dela. Hala eta guztiz ere, nik baino hobeki dakizue, jende ilara ikusgarriak egon arren, Urtia medikuak nolako abiatan husten duen itxarote-gela, gaixo bakoitzak bere errezeta-papera eskuan duela bidalirik.

Hori horrela izanik, nolako medikuntza egiten ote da kontsultagela horietan? Bada, hitz bitan esateko, presakoa eta enpirikoa (eritasunari buruzko gorabeherak auresuposatuz eta frogatu gabe) halegia. Sarri, sintomak berak aipatzeko ere ez da astirik egoten, eta are guttiago azterketa fisiko sakona egiteko. Kontsulta horietan, ez da inolako harremanik sortzen eri eta medikuaren artean. Eta txarrago dena, azkenean ia gorrotatu egiten dute elkar. Honela, askotan, bai medikuak eta bai eriak aurrerajuzkatu egiten dute bestearen jokabidea: "Berriro ere ba dator astun hau" pentsatzen du bat; "Laster emanen dit betiko aleska" pentsatzen du besteak.

Nolako tratu txarra eta medikuntza kaxkarra hartzen duen ikusirik, jendeak hainbeste nola kontsulta dezakeen pentsatzen dut sarri. Era berean, medikuek praktika desegoki eta frustratzaile herri nola eusten dioten ere pentsatzen dut. Azken hau, ba dakit zergatik den...Diruagatik, ez dago besterik. Gaur egun Aseguru Sozialak ordaintzen die gehien medikuei, eta lanpostu horik ekonomi aseguru bat legez hartzen dira. "Gauzak txarto egiten dira, baina nire semeen ogia aseguraturik dago" pentsatzen dugu.

Gaixoen aldetik, zer esanik ez, gehiegi kontsultatzen dutela esan behar da. Gehiegi kontsultatze hau herri gaixoen seinalea dela esan zuen batek, eta alderantziz, osansuntsu dauden herriek gutti kontsultatzen dutela. Hau horrela bada, gure herria oso gaizki dabilela esan behar dugu tamalez. Dударik gabe nabari dena zera da, pertsonen erresistentzia gero eta beherago doala, eta horrela, kontsultatu behar ez liratekeen gauza asko kontsultatzen direla. Hala izanik ere, herriak ez du, ene ustez, kulparik, gai honetaz ezjakina baita, edo, hobeki esateko, ezjakin legez eusten baitugu. Honez gainera, ba dago, egon, mentalitate kontsumatzailea, medikuntzan ere nabaritzen dena. Modako gauzak erosten ditugun bezala, osagarriak eta botikak ere erosten ditugu sarritan, horien eskale eta irenseak bihurtuz. "Emaidazu zerbaite, prezioari ez begira", "ez al dago ezer hau osatzeko?" eta abar luzea.

Medikuaeren aldetik, aseguruan ari denean ez du medikuntza egoki eta zientifikoa egiteko posibilitaterik, zeren ez baitu denborarik ez eta teknikoki diagnostikatzeko baldintza egokirik. Hau guztiau dela eta, mediku-gaixo harremana ez da betetzen behar litzatekeen eran. Harreman horrek maila berean dauden pertsonen artekoa izan beharko luke, harreman horretan pertsona batek (gaixoak) eman ahal dion beste pertsona bati (medikuri) laguntza modu bat eskatzen diolarik. Honen ordeaz, erlazio hotz eta indiferentea sortzen da: juxtu juxtuan kunplitu, eta aurrera. Lehen esan dudanez, egiten den medikuntza, enpirikoa da; hots, sintomak esan bezain laster, tratamendu bat agintzen zaio jendeari, eta honek bere arriskuak ditu. Puntu hau azpimarkatzea komeni da, egiten ari garen medikuntza arriskugarri eta kaltegarri izan daitekeelako.

Hilaren bukaren ongi irabazi arren, oheburuko medikuen medikuntza, frustratzailea da, ikasi dugun zientzia eta eguneroko praktika oso gauza ezberdinak baitira. Gainera, gaur eguneko sanitate egitura dela eta, beste akats handi bat dute mediku hauek: plurienplegua. Plurienplegua dela eta, jende nekaturia ohi da, ez du ikasten segitzeko denborarik ez ahalmenik, eta abar eta abar. Zertarako ikas, gainera, ikasitakoa praktikara eramanezin bada? Frustrazioa diru politagatik trukatzeko den neurrian, erabat harrapatuak gaude; eta hortik dator nonbait, egitura apurtzeko ahalmenik eza.



## MEDIKU BEREZITUAK

Oheburuko medikuen gainetik, mediku berezituak daude, hots, espezialistak. Oheburuko medikuak kasu bat konpondu ezin badu, edo eta —gaur egun geroago eta gehiagotan gertatzen den legez— gaixoak berak berezitu bat eskatzen badu (oheburuko oso despretigiaturik dagoelako, beste gauza batzuren artean), bigarren maila honetan sartzen gara.

Mediku berezitu hauek azterketa bereziagoak egiteko posibilitatea dute. Esate batetarako, pertsona batek katarroa badu, oheburuko medikuak ezin dio toraxeko erradiografiarik egin; hau beharrezkoa dela pentsatzen badu, biriketako espezialistarengana joan beharko du, eta beronek horrela erabakitzen badu, aipaturiko erradiografia egiten dio.

Zer gertatzen da errealitatean? Oheburuko medikua ez dela, izan behar lukeen iragazkia, hau da, mediku berezituarengana joan aurreko iragazkia. Alderantziz, bere medikuntza hain mugatua izanik, —erresponsabilitatea banatzearen besterik ez bada ere— behar lukeen baino jende gehiago bidaltzen du mediku berezituarengana. Arrazoi honegatik, bigarren maila honetan ere fenomeno berberak gertatzen dira: kontsultageletan amaigabeko ilarak, astirik ez, eta, berriro ere, kalitate eskaseko medikuntza, salbuespen batzurekin, noski. Bestalde, espezialistak oso zentralizaturik daudenez gero, eriek urrezko denbora galtzen dute haiengana joatean.

Oraingoaz puntu honetan geldituko naiz. Hala ere, ez nuke bukatu nahi, medikuok Herriaren errespetua lortu nahi badugu egoera hau aldatu beharrean aurkitzen garela esan gabe. Ene ustez, eta nola gremioaren aurka joatea "bekatu mortal" den, egoera hau bi eratako pertsonen alda dezakete: a) Ezkertiar ez abertzaleek b) Ezkertiar abertzaleek. Lehenak aurreratzen bazaizkigu, interes zentralistei ongi dagokion erreforma egiten dute Euskal Herrian, gure interesen aurkakoa izan dena dudarik gabe. Hau honela izanik, geuk hertzaileok dugu hitza. Hala biz.

P. Letamendi


**Herriarekin. Herriarentzat.**



**Caja Laboral.**



**CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AVRREZKIA**



# zinea, atsegingarria?



Zine-mundu artifiziala kreatzen da.

Kultura guztietan beti egon ohi dira, masen entretenigarri izan diren ikusgarriak. Eta, gainera, zenbat eta sozietatea zapaltzaileago izan, masa-ikuskariak ugariago izan dira. Beren diktadoretzaz kontziente diren diktadoreek hainbat dakite horretaz, historiaren joanetorrian hurbil ditugun faszimoetara joz erraz egiazta dezakegunez. Beraz, ba dirudi ikuskariak pertsonen beharrian psikologikoak asetzeko atundurik daudela, sozietate libro edo ongiaseetan agertzen ez diren beharrianak.

Planteamolde maximalista honek errepresioaren teoria metapertsonal batetara ginderamatzake, baina artikulu hau ez nuke honetaz egin nahi, pertsona arruntek zinera doazenean pentsatzen dutenaz baizik.

## ZERGATIK GOAZ ZINERA?

Zineari buruzko edozein estudio egiterakoan, bi elementu eduki behar ditugu beti kontutan: bata, filmea bera, eta bestea, publikoa. Bien arteko lotura, filmea zinegelan ikustea da —propaganda eta aldizkarietan agertzen diren krtitikak oraingoz alde batetara utziz— Analiza dezagun, beraz lotura edo erlazio hori. Horretarako galdera zuzena ondoko hau litzateke: “Zergatik goaz zinera?”.

Erantzunak jasotzean, bi eratakoak agertzen zaizkigu gehienbat. Lehen eratako erantzunak “erantzun arinak” direla esan nuke, eta bigarren eratakoak “erantzun sakonak” (erantzunen kualifikazioari ez jar, mesedez, “hobe” edo “txarrago” kalitate-rik, hau ez baita gustu edo mora-

laren arauerako klasifikapena). Erantzun arinen artean, honelakoak sartzen dira: “Denbora pasatzeko”, “denbora ondo pasatzeko”, “zinea gustatzen zaidalako”, “bizitze arruntean jazotzen ez diren gertakariak ikusten ditugulako”, eta abar. Erantzun sakonen artean, honelakoak sartuko nituzke: “Besterik ezean, norabait joan behar delako”, “ohitu egin naizenez, zinera noa igandero”, eta abar. Bigarren eratako erantzunak ez dira askotan horrela entzuten, baina horietan elementu berezi batek hartzen du parte: beharrian psikologiko baten erantzunak dira.


## ERANTZUNEN ANALISIA

Galdera bakarra duen inkesta honen erantzunak bildu ondoren, berorik arautzen dituen lege generalaren bila aritu beharko gina-

teke. Eta honetaz, psikologoek barka diezadatela, zeren beren arloan sartuko bainaiz eta, batez ere, ulergarritasunaren faboretan zehaztasuna galduko baitut, baina aurkituriko legea —salbuespenak salbu— honela formulatuko nuke:

“Pertsona gehienei filmeak hainbat eta atsegingarriago gertatzen zaizkie, filmean agertzen diren pertsonaiengan edo situazioetan inkontzienteki identifikatzen diren heinean”. Ohar gisa, diodan, ezer zinea arte huts bezala kontsideratzen dutenak alde batetara uzten ditudala, eta zinea gustatzen zaien neurrian soilik sartzen ditudala legean.

Lege horrekin zera esan nahi dut, zinebehatzaileek nork bere nortasunaren arauera beren buruak filmean isladaturik ikusten badituzte, edo eta baldin filmean beren pertsonalitatearen paralelo-




rik badago, filmea gustatu eginen zaiela. Identifikatze prozesu honen giro egokia behar du iluntasuna, tenperatura egokia, isiltasuna eta abar. Zinegeletan egon ohi dena hain zuzen ere.

### LEGE HORREN ALDEKO FAKTOREAK

Pasa gaitezen orain, lege horren balioa egiaztatzea. Horretarako, egin dugun inkestaren erantzunez baliatuko gara. Erantzun arinak hartuz, zera ikusiko dugu, zinea ordu batzu betetzeko aitzakia dela, eta orduak bizi behar ditugunez, zenbat eta atsegingarriago pasa, hobe.

Horretarako, aurrean ditugun filmen artean, aukera bat egiten dugu. Aukera horren arrazoiak era desberdinetakoak dira. Alde batetik, tokia edo zinegela bera dugu, indentifikatze prozesua errazagotu egiten baitu, eta honez esan dezakegu, nahiz eta aukera handia ukan, normalki ez garela dozena erdi zinegeletara baino gehiagotara joaten. Beste alde batetik, tituluak aktoreek edo propagandak sugeritzen dituzten filmearen tankera, zeren eta, adibidez, gustuko titulua ez duten pelikuletara ez baita inor joaten. Horregatik, filmeek duten publikoaz mintzatzen gara: "Horrelako filmeak ez ditut atsegin", "horrelakoak, tira" eta, "halako filmeak denak ikusten ditut".

Erantzun sakonak eman dituzten pertsonentzat, zinea atseginbide bat izaten da: eguneroko frustrazioak, ezaguna dugun baina errekonozitu nahi ez dugu ezereza, eta abar ahantzi egiten ditugu filmean ordu pare batez, geure eguneroko bizitzea agertzen ez diguten filmeetan batez ere, aristokraziaz edo goi burgesiaz ari direnetan edo eta menturaz edo zientzia fikzioz ari direnetan adibidez. Hain arrunt ez diren filme batzuren gaiak ere, hemen sartuko lirakeke, sozietatearen hutsune asko betetzeko eta asetzeko eginak prezeski: bortxakeriazkoak, sadikoak, pornografikoak eta abar.



Sozietatearen hutsune asko betetzeko eta asetzeko eginak...

### FILMEAK, LEGE HORREN ARAUERA

Garesti denez, zineak komertzialtasuna bilatu behar du, eta, bestalde, orain arte esandakoaren arauera, publikoak -guk- zinea behar du -dugu-, atsegingarria baita. Ondorio bezala, filmeen estilo orokorrak mintza gaitzke: zine komertziala, edo zinearen komertzialtasuna, gure identifikatze eta atseginbide beharrezanetan oinharrituriko negozioa da.

Identifikatzea errazago egiteko, artisten bizitze "erdi-publiko" erakustean, propagandak bide egoki bat eskaintzen digu, pertsonak -artistak kasu honetan- identifikabideak baitira. Hau, eta beste gauza asko ere, da, hain zuzen, zine komertzialaren eredu den Holiwood-en kasua. Holiwood-en sortu den filme pilak -gero munduan zehar hedatua- zine-mundu artifizial bat kreatu du, beti momentuan momentukoa. Horregatik, duela zenbait urte jendeoldeak erakartzen

zituena filmeren bat gaur ikusten badugu, zozo eta leloa geratzen zaiguke, orduko propaganda eta beharrezan ez baitira gaurkoak; eta era berean gertatuko bide zaigu, hemendik hogeitau urtetara, "Tiburona" edo "King-Kong" ikustean.

### ZINEA ARTE BEZALA. DESMITIFIKATZAILEAK

Baina ohiturak aldatuz doazenez -kontsumoko gizarteetan zerbait aldatu behar baita, saltzeko behintzat- publikoak -guk- beste era batetako filmeak exijitzen ditu -ditugu-, eta horregatik, teknikak zerbait berri edo ez-ikusia eskaini behar digu, atentzioa deitzeko adinekoa edo pelikula deigarria egiteko bezainbestekoa behintzat. Fenomeno honek zera dakar berarekin, zinea espresibide bezala dutenek, beren kreatibitateko bide bat aurkitzen dutela. Honela, gaur egun normaltzat jotzen ditugun planoak, argiztapenak eta zinepsikologiak, iraultzaile ziren orain urte batzu, beren ingurutik at baitzeuden. Gogora, adibidez, "Citizen Kane, edo Bergmann-en filme zahar batzu. Horregatik, filmeak beren textuinguru historikoan kritikatu behar ditugu, eta ez gu bizi gareneko textuinguruan.

Dena dela, zinea arte bezala kontsideratzen dutenek, karakteristika berezi bat dutela esan nahi: desmitikatzaileak direla. Zer ulertzen dudana hitz honetaz? Hauxe prezeski: Pertsona hauk ez dira saiatzen mundu fiktzio bat, zine-mundu bat, behatzailea bertara sartzeko mundu bat kreatoriaren barne-mundua kanporatzea saiatzen dira, zinearen bitartez eta zinea espresibide bezala hartzen dutelarik. Eta horrela, beste edozein artista bezala, hauek diotenez, bai filmeak eta bai zuzendariak, arte eta artista bezala kritikatu behar dira, eta ez norberaren gustuaren arauera. Zinea, beraz, gauza objektibo bezala kritikatzeko dute.

I. Zuazo.



# HERRI MAILAKO HIZKUNTZA

ISRAELEKO ESPERIENTZIA

Beti uste izan dut, euskal idazleok gauza guztien gaineretik kontutuan hartu behar dugula, ea nori idazten diogun. Euskal Herrian, gaur egun, seiehun mila edo dira, euskaraz hitz egiten dutenak. Horietariko gehienak pertsona nagusiak dira; eta ez dira inoiz euskarazko eskolara joan eta behar bada ez dira inoiz joango, hizkuntza hobeto ezagutzeko, euskara lantzeko eta beraren osotasunean menperatzeko. Horiek dakiten euskara, herri mailako euskara da. Bestelako euskara dakitenak, proportzioz oso gutxi dira. Pertsona nagusiez ari naiz; eta pertsona nagusi horiek batez ere osotzen dute gaurko euskaldungoa.

Euskal idazleok egiten ditugun liburuak eta aldizkariak, horientzat idazten ditugu gehienbat. Baina zein euskara erabiltzen dugu, herri mailakoa ala maila hortaz goragokoa? Idazle gehienok, dudarik gabe, minoriaren euskara erabiltzen dugu, maioriarentzat idatzi nahi dugunean ere.

Bestalde, Euskal Herrian, gaur egun, bi milioi dira gutxi gorabehera, euskaraz ez dakitenak. Horien artean ere, pertsona nagusiak dira gehienak.

## הנשיא ממשיך בהתייעצויות על הרקבת ממשלה חדשה


נשיא המדינה, פרנץ אפרים באיר, יוסיח עם היועץ המשפטי לממשלה, מרדכי אהרון ברק, על הצגדים המשפטיים הקשורים בהרכבת ממשלה חדשה.

אילן כהנא, יוסיח עם היועץ המשפטי לממשלה, מרדכי אהרון ברק, על הצגדים המשפטיים הקשורים בהרכבת ממשלה חדשה.



יוסיח עם היועץ המשפטי לממשלה, מרדכי אהרון ברק, על הצגדים המשפטיים הקשורים בהרכבת ממשלה חדשה.

דין טודי  
בבית רבין  
מקרה של פיקוד  
הצבאי



יוסיח עם היועץ המשפטי לממשלה, מרדכי אהרון ברק, על הצגדים המשפטיים הקשורים בהרכבת ממשלה חדשה.

בית רבין  
מקרה של פיקוד  
הצבאי

בית רבין  
מקרה של פיקוד  
הצבאי

בית רבין  
מקרה של פיקוד  
הצבאי

בית רבין  
מקרה של פיקוד  
הצבאי

בית רבין  
מקרה של פיקוד  
הצבאי

בית רבין  
מקרה של פיקוד  
הצבאי

# למאתיל

1060 שבועון מעברית קלה  
יוני 1971 • מספר 1060

אלון: "הצהרות סאדאת - מסמר ראשון בארון המתים של החלטות ראבאט"  
רשימת המדינות שהצהרות סאדאת הועברו להן  
הצהרות סאדאת הועברו להן

הנחם שלוש חלונות מודיעין סודית בגולן  
הצהרות סאדאת הועברו להן

מיליון זה  
הצהרות סאדאת הועברו להן

אל תשכחו אותנו - ביקשו יהודים בקדמק ממלחת "ההקה"  
הצהרות סאדאת הועברו להן

## "Lamathil", hebraiera erraxeko aldizkari bat

Pertsona horik euskaldundu egin behar ditugu, baldin euskarak irautea eta Euskadi Euskal Herri izatea gura badugu. Pertsona nagusi horiek, nola edo hala, ikasi egin beharko dute euskara. Baina, segur nago hortaz, pertsona nagusi horietariko gehienek ikasiko duten euskara, nahi eta nahi ez, herri mailako izango da, bestelako euskara ikasteko ez baitute ez astirik ez dirurik ez gogorik ez gaitasunik ez beharrianik izango.

Nik neuk gero eta argiago ikusten eta sentitzen nuen, herri mailako euskara hori, bestea utzi gabe, seriokiago hartu behar genukeela, eta jaramon gehiago egin, maila hortan mugitzen den eta oraindik urte askotan mugituko den gaurko eta biharko euskal irakurleen maioriari.

## ISRAELEN EGITEN DENA

Zer egin hortarako? Zer egin, pertsona nagusi horiek gure liburuak eta aldizkariak gustura irakurtzeko? Zer egin, Euskal Herrira milaka eta milaka etorri diren eta etorriko diren kanpotarrak hainbat arinen geure kultura idatzian integra erazteko? Nik ba nekien zerbait, juduek hebraiera birpiz-





teko egin duten lan miragarriaz. Ba nekien, azken hogeia ta hamar urteotan mundu guztitik Israelera joan diren juduak, izugarriro asko izan direla, eta gaur egun denek edo ia denek hebraieraz hitz egiten dutela. Ba nekien, halaber, judu berrirentzat aldizkari eta liburuetan herri mailako hebraiera erabiltzen zela. Baina, zehatz-mehatz, ez nekien ezer.

Horregatik, hara joatea erabaki nuen: herri mailako hebraiera hori zernolako den jakiteko, hizkuntza berezi hortan lan egiten duten kazetari eta idazleekin berba egiteko, zer teknika erabiltzen duten ikusteko, Israeleko Gobernu sozialistak eta hango Akademiak arazo hortan zer parte hartzen duten ezagutzeko, gero guk ere hemengoentzat —bereziki, eskolara joateko adinean ez dauden hiztunentzat eta euskara ikasten ari diren eta ari izango diren pertsona nagusientzat— holako zerbaiteko.

“Guk ere holako zerbaite” esan dut. Baina nor gara gu? Nik bakarrik ez behintzat. Ni zaharra naiz, idazle, kazetari eta euskaltzain kaxkarra, eta gainera apezka. Gutxienez beste lagun bat eraman behar nuen neurekin Israelera. Lagun gazte bat, idazle eta kazetari trebea, euskaltzain jakintsua, eta politikaren aldetik sozialista, herri xehe eta langilea haintzat hartzen duen alderdikoa, Euskal Herrian maioria den jende horren beharrezanean lehentasuna eman nahi dion partidukoa. Nire lagun hori denok ezagutzen duzye, eta beragaz joan nintzen Israelera.

Israelen, Gobernu sozialistaren babespean eta Akademiaren laguntzaz, lau erakunde berezi daude, judu berrien kultur integrazioa eta judu zaharren alfabetatzea xedetzat dituztenak: herri mailako kazetaritza, herri mailako irrati-telebista, ulpan eta ulpanit deitzen diren herri mailako ikastetxeak, eta herri mailako liburugintza.

## HERRI MAILAKO KAZETARITZA

Herri mailako kazetaritzan, hiru agerkari publikatzen dira: bata egunero, eta beste biak astero. Hiruretan “ivrit qalá” edo herri mailako hebraiera erabiltzen da. Bakoitzak bere arlo berezia du, alfabetatze eta kulturtze lan hortan. Hiruretarik irakurterezena eta hizkuntza ondo menperatzen ez dutenentzako egokiena, “Lamatkhil” izeneko aste-karia da. Izen honek “Hasten denarentzat” esan nahi du. Astekari honen zuzendariagaz izan ginen, eta beragandik interes handitako informazioa jaso genuen.

Agerkari honek, gaur egun, hogeia mila ala banatan ditu astero. Ez da gutxi. Ez dugu ahanztu behar, beraren antzeko, berrogei mila aletako beste aste-kari bat ere eta hamar mila aletako egunkari bat ere argitaratzen direla. Bestalde, gaur egun, Israelen, hiru milioi judu bizi diren lurralde ttipi hortan, gero eta gehiago dira, geldi geldizka hebraiera normalean idatzitako egunkarietara pasatzen diren irakurleak, eta hizkuntza normal hortan beraiantzat publikatzen den gutzia ulertzeko gai

direnak. Baina, hala ere, irakurle horietariko askok nahiago dute herri mailako hizkuntza; eta beste askori —batez ere Israelera etorri berriak diren juduei— beharbeharrezkoa zaie hizkuntz molde hori, orain eta urte askotan.

“Lamatkhil” astekariak zortzi horrialde handi samar ditu. Fotografia asko. Letra handia. Lerro arteko zuriune lasaiak. Artikulu laburrak: berrogei ta hamar, ehun, berrehun, hirurehun berbatakoak. Artikulu luzerik bat ere ez. Esaldi sinpleak. Esaldi konposaturik oso gutxi. Eguneroko bizitzan eta ulpan eta ulpanit deitzen diren ikastetxeetan erabiltzen diren berbak. Hitz ezezagunak gutxi. Holako hitzek izarño bat daramate, eta haien esannahia artikulua azpian adierazten da. Hitz internazionalak asko, eta haien alboan noizean behin hebraierazko hitza parentesi artean. Kazetal teknika oso ongi pentsatua. Idazleek, hizkuntzaren aldetik, astekariaren arauak gorde behar dituzte. Zuzendariak eskubide osoa du, artikulua zuzentzeko eta aipatu arauok gorde eratzeko. Jokabide hau onhartzen ez duen idazleak, utzi egin behar du bere lana. “Hobe da idazle bat galtzea —esan zigun zuzendariak— irakurle bat galtzea baino”. Astekaria oso merkea da, Gobernu sozialistak ordaitzen baitu gastu guztien erdia. Ulpan eta ulpanit deitu ikastetxeetara dohai-nik bidaltzen da, eta eskola horietako ikasleek irakur eta ikasgaitzat erabiltzen dute.

## HERRI MAILAKO IRRATI-TELEBISTA

Orain zertxobait esango dizuet, herri mailako irrati-telebistaz. Israeleko irratiak egun guztiez ematen ditu “ivrit qalá” delako hortan eguneko berriak, hamabost minutuz goizean eta beste hamabost minutuz arratsean. Beharbada emanaldi luzeagoak ez dira hain beharrezkoak gaur egun, herriaren kultur integrazioa aspaldikoa baino askoz handiagoa da eta. Hala ere, asko omen dira, emanaldi hedatuagoak pozik entzungo lituzketen entzuleak. Irratiko berriok, gero, magnetofonoz errepikatzen dira ulpan eta ulpanit deitu eskoletan, ikasleen artean hizkuntz ariketak egiteko.

Telebistan, judu berriek ordu erditako ikustaldi bi dituzte, bata goizean eta bestea —goizeko bera— arratsean, herri mailako hebraiera ikasteko. Telebistegileek inportantzia handia ematen diote irakaspide honi. Ihaztik, hamabost telebistaldi desberdin ematen hasi dira, hiru astero, errepika eta errepika urtean zehar. Ikuslea laguntzeko, hiru tomatoko telegidaliburu bat argitaratu dute. Milaka dira, telebistaldiok beren etxeetan segitzen dituztenak. Eta ulpan eta ulpanit deitu eskoletan, irakasmolde hau urte osoko programan sartzen da.

## HERRI MAILAKO IRAKASKUNTZA

Sarritan aipatu ditut hemen, ulpan eta ulpanit deitzen diren ikastetxeak. Zer dira? Nolakoak dira? Hara! Bai ulpanak eta bai ulpanitak, pertsona nagusiei hebraiera irakasteko eskola bereziak dira. Ulpanetan egun osoan irakasten da; ulpanitetan, berriz,



arratsean eta gauean bakarrik, egunero, ordu pare batez gutxi gorabehera. Herritarrentzat, eskola hauk oso merkeak dira, Gobernu sozialistak ordaintzen baitie irakasleei. Israeleko herri, herrixka eta hauzategi guztietan aurkitzen dira. Muga ondoko tokietan, badaezpada, soldaduak dira irakasle. Oso irakas metodo modernoak erabiltzen dira. Irakasleak guztiz ondo preparaturik daude. Han ez da ezer inprobisatzen. Ikasleei eguneroko hizkuntza irakasten zaie. Kalean, lantokian, kafetegian erabiltzen dena. Gizarteko bizitzan norbera polito kontontzeko behar dena. Herri mailako agerkariak eta liburuak irakurri ahal izateko aski dena. Hortik gorako hizkuntza ez zaie irakasten. Hebraiera normala, hebraiera landua eta aitzinatua, haurren eta gazteen eta unibertsitarien ikastetxeetan irakasten eta estudiatzen da. Eta sakonki gainera. Gero berak izango dira, gurasoei eta etxekoei hebraiera normala irakatsiko dietenak. Sei aste egon nintzen holako ulpan batetan, hebraiera ikasten eta bide batez hango irakas moldeak estudiatzen. Zuzendariak esan zidanez, aski dira bost hilabete, herri mailako hebraiera hori polito menperatzeko. Egia da: eta hola konprenitzen da, kanpotarrez beteriko Israel osoa nola hain denbora laburretan judutu den.

#### HERRI MAILAKO LIBURUGINTZA

Neure esperientzia honen azken puntua geratzen zait azaltzeko: herri mailako liburugintza. "Ivrit-qlá" bakarrik dakitenek, maila hortan idatzitako liburuak behar dituzte, egunkari eta aldizkariak gainera, baldin analfabetuen antzera bizi nahi ez badute. Eta holako literatura ematen ez bazaie, atzerriko hizkuntzetan idatzirik liburu eta aldizkarietara joko dute, nahi eta nahi ez. Kontutan eduki, Israelera etorri berri diren askok, herbesteko hizkuntza bat baino gehiago dakitela, eta Israeleko edozein liburu dendatan munduko liburu eta aldizkariarik onenak erosi ahal dituztela.

Herriko hizkuntza alde batera uzteko arrisku hori zeharo galerazi da Israelen. Nola? Populuar herri mailako literatura oparo bat emanez. Hebraiera normalean liburu inportante bat argitaratzen deanean, haren edizio laburrago bat ere publikatzen da herri mailako hizkuntzan. Liburu asko argitaratzen dira "Ivrit qlá" hortan. Gehienetan, azalean bertan agertzen da berba bikote hori: "Ivrit qlá".

Baina zer da "ivrit qlá" hori? Zertan datza herri mailako hebraiera hori? galdetuko didazue. Galde hori berori egin nien nik ere bertako askori. Egia esan, ez daukate hortarako idaztarau finkaturik. Gehienetan, senak berak esaten die nola idatzi behar duten herriarentzat. Ba dakite, hiztegi mugatu bat erabili behar dutela, esaldi laburrak egin eta adizkera zailak baztertu behar dituztela. Gauza konkretu konkreturik ez zidaten erantzun. Baina egia hauxe da: Herri mailako literatura oparo bat dutela, eta literatura hori, herbestetik etorri den jende uholdea Israeleko kulturari integratzeko bide egokienetarikoa izan dela.

153

תמונה 10 ג.ב. 1980

אוציקלופדיה

# חיות הבר

WILDLIFE חיות העולם בסביבתן הטבעית



60

עמודי דיאגרמות  
על חולייתנים

Salvat-en Natur Zientziak hebraieraz ere bai

#### GUK ERE EGIN BEHAR GENUKEENA

Idazlantxo honen bidez, gauza bat adlerazi gura izan dizuet: Hebraieraren birpizkundean herri mailako hizkuntzak izugarritzako inportantzia izan duela, eta guk ere hemen holako zerbait egin behar genukeela, baldin euskara gure herri osoaren hizkuntza izatea nahi badugu. Gogoan eduki, Bizkaian bakarrik, euskaraz ez dakiten pertsona nagusiak, gutxienez zortziehun mila direla —Ibaizabalena alderdi bietako ia lagileria osoa—, eta herri mailako hizkuntza horren bitartez bakarrik euskaldundu ahal izango ditugula. Euskara mota hau denon artean moldatu behar genuke. Euskara batua izango da, noski, eta jatorra. Hortaz ez dugu dudarik egiten. Ni neu euskara hortan idazten saiatu naiz, lantxo hau egin dudanean. Beharbada ez zarete konturatu; baina idazlantxo hortan ez ditut behin ere edin eta ezan aditz laguntzaileak erabili, eta baztertu egin ditut erabat potentzialeko eta subjuntiboko adizkerak.

Herri mailako euskararen beharrian hontaz denok behar genuke kontzientziatuak izan: euskaltzainek, idazleek, kazetariak, politikariak eta besteak. Hau ez baita txantxetako gauza.

Imanol Berriatua.



## euskal erlijiosoen v. batzarre nagusia

LEHEN,  
GARESTIA ZELAKO,  
HARAGI UZTEA GENUEN,  
ORAIN,  
GARESTIAGOA DELAKO,  
POLITIKA BARAUA  
EGIN BEHAR.



Abenduaren 27 eta 28an euskaldun fraile eta seroren V Batzar Nagusia izan da Loiolako Gogotxean. 100 inguru bildu ziren.

Honelako Batzarreek izan ohi dute folklore hutsean gelditzeko arriskua: horrelako zerbaitetan erortzeko bidean ez ote gara ibili beste urteetan... Horregatik aurtengo Batzarra beste bide batetik eramana izan da. Gaiak ere gaurkoagoak, gure inguruari lotuagoak, gure problematikara bilduagoak.



Izan ere, aspalditik, nolabait esateko, kolonialismo handi batetan sartuak eta azpiratuak egon gara, herriaren minetatik eta itxaropenetatik eta gogoetatik urrun. Aitor, aitor genezake ez diogula gure herriari hurbiletik segitu. Egoera horretatik gure burua askatzeko hedatu ziren Batzarre hauk. Erlijioso garenez, gure fede eta erlijioso-hautapena, euskaldun bezala eta Euskal Herrian bizi nahi dugu. Baieztape nagusi honek eraginda, bildu ohi gara urtero.

### ...ZEINTZU GAI ERABILI DITUZUE ETA NOLA AZTERTU DITUZUE?

Bai talde nagusi eta bereizi izan dira batzarre horretan: bata, irakaskuntza alorrean dabilen erlijio-taldea, eta bestea, "etxe-bizitzako" deituriko taldea. Bi talde hauek beren gaiak izan zituzten aztergai.

Irakaskuntzakoek "Euskera gure ikastetxeetan" nola eman, zer eman, ze metodologia erabili, zenbait esperientzia berri agertu, eta abar... Bide horretatik eraman zuten beren lana. Lan honen ardatza lasalletar taldeak eraman zuen, beren metodo eta esperientziaren berri emanaz.

Talde honen lana aberasteko eta euskararen egoera nola dagoen ikusteko (zein atzerapen izan den eta zergatik, egungo euskaren egoera eta bizi den aurrerapenaren aztarnak...), Iñaki Larrañagak mintzaldi jator bat eskaini zuen talde honen barnean. Irakaskuntza-taldekoek zuten gaiarekin loturik, Mikel Lasak beste hitzaldi jakingarri bat egin zuen bi taldekoen aurrean. Euskararen arlo honetan nola jokatzeko diharduten Leniz-bailaran, bertako ikastetxeetan, zein plangintza zabala duten, zein zailtasun, eta abar, xehetasun guztiekin eskaini zigun Mikel Lasak. Izan zen beste hitzaldi bat ere. Imanol Berriatuak gure artean izan genuen bi egun haietan, Israeleko lurraldeetan jaso duenaren berri ematera etorria. Hitzaldi bizi eta oso interesgarria eman zuen, juduen hizkuntzaren fenomeno miresgarria agertuz.

Lehen taldearen lana, beren elkar-hizketaren ondorioak eta beren asmo eta ekinbideak honetan laburtuko lirateke:

—Gainean ditugun sozio-politik-aldakuntzak pastoral aldetik zein ondorio dakarzkiguketan aztertu eta ikusirik, geure kezka eta larritasunak agertu nahi dizkizuegu Probintzia eta etxeetako nagusiei (euskal erlijiosoen Probintzi eta erlijioso-etxeetako nagusiei).

1.—Aipatu aldakuntza horik guzian begibistan daude:

a) Alderdi politiko guztiak, esateko, herri kontzientzia ikusirik, honetaz jabetu dira: euskara eta euskal kultura ezinbesteko tresna dutela beren helburuak lortzeko.

Hargatik, gogoz zein taktikaz, buru-belarri ekin zaizkio guztiak euskararen ofizialtasuna eskatzeari.

Alderdikide asko, alderdi horietan, orduak eta orduak hasi dira eskaintzen euskara ikasteko.

b) Era berean, bide berari ekin zaizkio unibertsitariak ere. Esaterako, ESTE-ko ikasle eta irakasleei egin inkesta batek hau eman du: o/o97k euskararen irakaskuntza ipintzeko eskatu du fakultatean. Gainera, guztiok argi eta garbi agertzen dute, aurreko irakaskuntza mailatan euskara irakatsi faltaz, Unibertsitate euskara jakin gabe iritsi direlako. berekin egin den bidegabekeria.

c) Euskal Herriko langileen joera ere, euskarari eta euskal kulturari buruz, guztiz nabarmena da. Asko eta asko ari da euskara ikasten, lantegian bertan klaseak antolatuz.

d) Gau Eskola Elkartearen fenomeno ere guztiz aipagarria da: Gipuzkoa eta Bizkaian bakarrik 30 mila lagun baita euskara ikasten Elkarte berroren ardura-pean.

Laburtuz, argi eta garbi dago, gaurko euskal jendearen nahia eta gogoia.

2. Horiek horrela, Euskal Herriko erlijioso eta serorek zer?

a) Gure Ikastetxeetan (Unibertsitate mailakoak aparte) kasik 200 mila ikasle ditugu, 337 ikastetxeetan banaturik.

b) Ikasle horietatik o/o40ri irakasten zaio euskara eta euskal kultura.

c) o/o40 talde horretan ere, banaka batzuekin izan ezik, itxuraren bat baino ez da egiten euskara irakasteari buruz: astean orduren bat edo beste eskainiz.

d) Okerrena, hauxe da: Euskal Herriko erlijioso eta serorak ez dirudiela konturatu garenik goian aipatu sozio-politik aldakuntzaz, eta Euskal Herrian bizi ez bagina bezala iharduten dugula.

Hitz batean, ez gara konturatzen maila horretako geure jokabideak nolako zerikusia duen geure pastoral lanarekin. Alderdi politikoak ongi jabetu dira, herrian zerbait egin nahi baldin badute, euskarari garrantzia emateak zertarainoko inportantzia duen. Guk, aitzitik, fedearen eskakizunez ere aldi zantzuei erantzun jator bat eman behar genkeenok, ez gara "oportunismo" zentzurik edukitze-rea eristen.

Beraz, erlijioso eta serora arteko jokamolde horretaz biziki kezkatu eta larriturik, hona gure eska-bide zorrotzak:

1) Hizkuntza bat ikasteko garairik egokiena eskolaurre garaia denez gero, eta garai horretan ikasteak EGBn euskara ikasi beharrak sortzen dituen zailtasunak hein handitan arin-



duko dituelako, Eskolaurrea gure ikastetxeetan, haurrak EGBko lehen mailara euskara ondo jakinez iristeko moduan antola eta molda dadila eskatzen dugu.

- 2) Egiatzko elebitasunezko irakaskuntza moldeak euskararen alde askoz ere gehiago eskatzen duela jakinik ere, bitarteko neurri bezala, erlijioso eta seroren ikastetxe guztietan, eta gutxieneko neurri bezala, EGBko urte guztietan euskara eta euskal kultura ikasteko ordu bete ipin dadila eskatzen dugu.
- 3) Erlijioso eta seroren ikastetxeetan diharduten irakasle guztiei, sekular eta erlijioso-serorei, zorrozki eskatzen diegu epe labur baten barruan euskara ikas dezatela.
- 4) Azkenik, euskararen irakaskuntza antolatu eta bultzatzekotan, Kongregazio guztiei, nola Probintzi mailan hala ikastetxe bakoitzaren mailan. Batzorde bat antola dezatela eskatzen diegu.

Lehen taldearen lana ondorio hauetara iritsi zen, ondorio eta eskabide hautara.

#### ...ETA BIGARREN TALDEAREN LANAK ZEIN BIDE ERAMAN ZUEN ETA ZEIN ONDORIO EKARRI?

Pello Zabaletak: "Politika egiten ari gara" gaia erabili zuen. Ez zen uste eta nahi bezain aberatsa izan. Ez noski, hizlariaren erruz, metodologiaren erruz baizik: ez baitzuten talde tikieta aztertze betarik eta modurik izan. Ideia nagusi batzu aipatzekotan hau lirakeke nagusienak:

"Elizak elizgizonen politika egitea eragotzi egin eta egiten die. Eta berak ere ez duela politikarik egiten esaten du. Sarri, elizari ere politikarik egin ez dezan eskatzen zaio. Zenbait "indardunei" hala komeni baitzaie... Bainan, derrigorrez, elizak eta elizgizonen politika egin dute. Nagusien alde edo kolonialismo indarren alde.

Izan ere, politikak herri baten nortasuna azaldu eta eratu nahi badu (pertsonei arteko eta gauzekiko erlazioan baitago politikaren muina), herri zapaldu batetan, herri horren alde egongo da, ala kontra.

Horregatik herri kontzientziak garrantzi handia du. Hau da, herri baten historiarekin solidarizatzea, han dagoen sena norbere bihurtzea, balioak jasotzea, eta aurrera eramatea. Munduan, herrialde izanik, herrien arteko bat, guztien aberastasunerako da.

Elizak ere, bere jokabideekin, politika egiten du. Erlijiosoek ere bai. Ez baitago ezer hemendik ihes egingo duenik. Zentzu honetan, gizonen ekintza guztiak dira politiko. Ekintza soilena, politikoa da.

Horretaz, hain da garrantzizko, herri baten —eta erlijioso herri horretan jaioa eta etorria da— alde egiten den lan, ala aurka, jakitea.

Pentsamendu nagusi hauen harian, elkarrizketa bizia sortu zen. Esateko: Nola bizi pluralismoa gure komunitateetan, erreferenduma dela ta, denetik gertatu baita, elkar-errespetoa eta iskanbila...

Baina, zaila da pluraltasun horrenganako errespeto eta begirunea, komunitate barneko dinamika hutsez. Herrira irten behar da, herritik hurbil bizi, herri-pultsoa hartu, taldeen programak aztertu eta ezagutu.

Elkar hizketa honen barnean, galdera zorrotz bat izan zen zenbaitzuren ahotan: "hemen gure herrian posible da fede-testigantza ematea, baldin horretarako herri kontzientzia badago. Euskal erlijiosoen fede-testigantza sinesgarria izango da, noski, baldin herri honen historiarekin solidarizatuta bizi bada.

Baina nola gureganatu herri kontzientzia hori? Kontzientzia hori, herriko mass-media delako horretatik jaso ohi da. Arazo honetan, gizarteko komunikabideek garrantzia handia dute... GARAIA, PUNTO Y HORA; ZERUKO ARGIA...k zerbait egingo ahal dute!

Elkar hizketa honetan beste gaia, pluraltasuna izan zen: beren zentzua, bere mugak, fedezko hautapenetik datozen mugak. Pluraltasunaz ongi jabetzen ez baldin bagara, nolana alferkeria eta barkarkeria batetan eror gaitzeko. Hau da, pluraltasunaren atxakian, norbere alferkeria eta itsukeria izkuta daitekeela. Arazo hauen inguruan ba ziren zenbait puntu talde tikieta aztertze, baina ezin izan genuen, Mikel Lasaren hitzaldiak bete baitzuen horretarako eraturik zegoen tartea.

...Ba zen bigarren taldearen azterketarako beste gai bat, Paulo Agirrebaltzategiren ardurapean presentatuta, "EUSKAL ELIZA BERRIA, EUSKAL KULTURA BIDEETAN" halebategia: honetaz zer?.

Historiari begira, Euskal Herriko Historiari begira, kritika modu bat egin zuen hasteko: bi aldetatik, Madriletik eta Parisetik, ezarri diguten zentralismoa salatuz, eta gertakizun honen ondoan, kolonialismoa, konstantinismoa, eliza ofizialaren jokabidea...

Ez dugu gure Elizarik; eskekidura lotsagarriak izan ditugu, Madriletik eta Parisetik... "Eliza BERRIA behar dugu, Euskal Eliza BERRIA..." Ba zirudien BERRIA hitzak sumo txarrak sor zitzaie. Paulo berak, gero argitu zuenez, BERRIA hitzak ez du esan nahi "Erromatik etena, beste elizakiko konunionetik urratua, zismatikoa", "Berriak, izan-ez-dena-izan-dadila esan nahi du: euskalduna, bestelakoa, beste Eliza berri bat ez, bainan Eliza bestelakoa, Euskal Eliza: beste isegidura eta politik-kutsuzko loturetatik askatua: euskal kulturaren errotua, ez lehenari begira bizi den kulturaren bakarrik oinarritua, baizik geroari iraultza-dinamikaz berri-tua..."



Geroari begira "nolakoa izan beharko lukeen Euskal Elizak" argitzerakoan, lau puntu hauetan laburtu zuen bere eritzia: Eliza hiritarra: pentsamolde sekularra onhartzeko duen Eliza: talde tikietan oinharritua, mezu profetikoa emateko prest, egungo zibilizazioaren eta kulturaren aurrean zentzu kritiko zorrotz baten jabe. Eliza bateratzailea: bat ez baldin bada ere, bai bateratzaile. Eliza euskalduna: katoliko izateko gu geure buruaren jabe izan behar dugu; guk hau, euskaldun izanik bakarrik lortuko dugu. Eliza herritarra: euskal kulturaren oinharritutako Eliza, eliza klerikalaren kontrakoa...

Gai honi buruz sortu zen elkarrizketaren puntu nagusiak hauk izan ziren: batzuk, Pauloren hitzaldia optimistegizat jo zuten: berak zioena, teoriaran ederra eta horrean denok edo, akordioan egon arren, pausoka-pausoka eta epe luzetan lan egin beharko dela aitortuz hizketatu zen taldea.

"Euskal Elizarik ez dugu izan": aitorten honen aurrean ez ziren denak erizkideko nabarmendu. Hitzak ongi mugatu behar baitira.: Euskal Herria, herria izan den neurri horretan ez ote dugu euskal elizarik izan inondik ere? Kezka hau oso nabarmen ageri zen zenbaitzuren ahotan.

Elkarrizketan aipatu zen beste puntu nahiko zorrotza eta sakona hauxe izan zen: "Zerk luke lehentasuna euskal Eliza berri honetan: balio izpiritualak ala giza eta herri-balioak?": biziki eztabaidatu zen puntu hau, azkenik honetara iritsiz, halegia, izpirituzko baloreak giza eta herri-baloreetan errotzen direla. Beraz, nekez lan daitezke egoki izpiritu-baloreak giza eta herri-baloreetatik kanpo. Gai honek sortu zuen giroan, galdera zorrotz bat geldituz zen zintzilik denon gokoetan: "Gaur eta hemen, Euskal Herrian gauden bezala, posible al da federik...?"

Elkarrizketa guzti honen ardatzean somatzen zen kezka eta baieztapen oinharrikoa, "Euskal Eliza Berri honek oinharritik eta elkarte tikietatik sortu beharko duela", izan zela esan daiteke. ... Eta gogoetaldi hauen ondorio bezala zer eskainiko genioke gure Herriari?.

Eliz Herriaren oinharrian, ikusten dugu Erlijiosook geure burua eta geure egitekoa. Historian zehar, Eliz Hierarkiaren luzapen eta irudiko izan gara uste dugu sarritan, gure egitekoa ere haren zerbitzuan emanaz. Baina erlijiosook gaurregun oinharriko kristau elkarteak izan behar dugula uste dugu, geure fedea elkar bizitzan argitzen eta bizitzen saiatuz.

Horregatik, Eliz oinharrian dagoela uste dugu gure lekua eta gure egitekoa. Bide honetatik, gaurko Euskal Elizan oinharriko kristau elkarteetan parte hartu behar dugu, hortik Eliza beraren berrikuntza bilatuz.

Euskal Eliza Euskal Herriatik abiatuz eta kristau herriatik bertatik eginen dela uste dugu. Horregatik,

Euskal Elizaren Batzarre Orokor bat eskatzen dugu (Euskal Elizaren Kontzilioa), kristau herri osoak parte hartuz.

Aurreko urteetan eskatu dugun bezala, bertiz ere adierazi nahi dugu Euskal Eliza instituzio mailan egitearen premia. Horregatik, Euskal Apezpikuen Konferentzia eratzea eskatzen dugu. Baina eskabide honekin batera doa beste hau ere: Erlijioso garen ez, euskal Probintziak (hau da, Euskal Herri osoak) eratzea eskatzen dugu, Euskal Herriari erantzun jatorragoa eman diezaiogun. Baina, eskaera hau betetzea posible ez bada, erlijioso Probintzia berean etxe ugari delako, batzu Euskal Herrian eta besteak kanpoan, orduan Euskal Herriko etxeekin Probintzia-orde bat egitea eskatzen da, Euskal Probintzia sortu arte.

Gure Probintzialesi eskabideak eginaz batera, geuk lana euskal alorrean egiteko geure buruak eskaintzea egoki ikusi da (irakaskuntzan, esaterako, behar-beharrezkoa da...)

Gure Herriaren deihadarra, amnistiaren alde, zuzena dela onhartzuz, guk ere Herriarekin bat eginaz, Erregari amnistia orokorra eskatzea eskatzea erabaki da.

Gure Euskal Herriko Probintzialesi bi eskabide eginen dizkiegu:

1.—Euskal Herriko Probintzialen Elkarteak, bertan bizi diren Probintzialesek osatutako deza-tela, eta, Euskal Herriatik kanpo bizi diren Probintzialesek, hemen komunitateak baldin badituzte, bertoko komunitateen ordezkari bat izenda dezatela. Baina ez dezatela ordezkari hau Probintzialesek aukeratu, bai ordea Euskal Herriko komunitateek.

2.—Euskal Herriak Euskal Herriko Elizari batasuna eskatzen dio. Erlijiosok Eliza honen talde handi bat garen ez gero, Probintzialesek ager dezatela berandu baino lehen, Euskal Eliz Probintziari buruz zer pentsatzen duten, eta zer Euskal Herriko Elizari buruz.

Azken puntu nagusi hauk denon aurrean eztabaidatu eta onhartu ondorean. Batzorde berria nortzuk osatuko duten ikusteko hauteskundeak egin ziren. Batzorde berria osatuko dutenak hauk dira:

- zuzendari: Iñaki Bereziartua, frantziskotarra.
- ordezkari: Joxe Agustin Elustondo, frantziskotarra.
- etxe-bizitzatik: Jose Manuel Agirrezabala, lasalletarra.
- irakaskuntzatik: Begoña Sardui, mertzedaria. Mirari Bereziartua, karitatekoa. Dunixi Arzelus, lasalletarra.

## SESTAOKO HERIOTZEARI BURUZ

Urtarril tristagarri honetan, Sestao-ko manifestaldi gogorretan mutil gazte bat hil zen. Komunikabide ofizialek heriotze hori naturala izan zela esan digute. Mutilaren aldeko elizkizunetan ere berdintsu esan zen nonbait. Hala ere, elizkizunetan apezek agerturiko jarrerak ez bide zituan jendearen kez-  
kak eta justizi egarria ase; eta jarrera horrekin ados ez zeudèn kristau bat-  
tzuk, gutun hau prestatu dute eran-  
tzun gisa eta ANAITASUNARA bidali argitaratzeko:

"Gure Herriak sarritan ezagutu du, militar erauziaren indarrak sortu duen beldur-ikara. "Ordena indar-  
rrek" gogorki eta zanpaka isil erazi dute, hitz egiten hasi denean. Joan den igandean pake-pakean ari zen manifestapen bat egiten, aspalditik Euskadi osoan entzuten ari den oihua ahoan zelarrik: AMNISTIA DENONTZAT. Enparantza "ordena indarrek" heldu ziren, eta geroztik dena izan zen beldur-ikara. Eta ezer esan gabe, jendea joka hasi ziren. Probokazio bat besterik ez zen izan, bistan dago. Eta han, Juan Manuel Iglesias hil zen.

Gobernu zibilak, bere aldetik, prentsa bidez gezurra besterik ez zuen esan. Eta zapalketak astelehena ere irauin zuen. Asteartean, mutila ehortzi ondoren, beldurra eta egurra azaldu ziren berriro: tiroak, ke poteak, gomazko balak..Eta 40.000 bat pertsonaren pakea desegin zuten, igandean zer pasatu zen jakitera joan zirenen pakea.

Porrakadak, kuletakadak, ostikadak eta gogorkeria handizko egintzak kaleetan eta atarrietan. Hau guztiau izan zen Sestaoko gau hartako ondorioa.

Indarkeria hau guztiok ikusirik, Sestaoko kristau talde batzuk salhatu egin nahi ditugu bortxakeriok hurrengo puntuetan.

-Gobernuak eta indar zapaltzaileek gure Herriaren asmoak eta oin-harrizko libertateak zapuzteko egiten dituen ahaleginak.

-Prentsaren berri-emate gezurtia, Gobernu Zibilaren agiri maltzur eta faltsoaren bidez Juan Manuelen heriotzea "natural" bezala agertzean.

- "Gure" autoritateen inmoralitatea salhatzen dugu, beraiek laguntzen baitute zapalkuntza, Herria defendatu beharrean.

Ez dugu gorrotorik birbitzu nahi, baina egia ez da negoziya daitekeen gauza.

Kristauak garenez gero, gure fedea gure Herriaren alde egiteko opzio bate-tara garamatza eta zapalkuntzaren aurka burrukatzera bultzatzen gaitu.


Sestaoko Herriarekin:

AMNISTIA OROKORA  
NAHI DUGU

EUSKADIRENTZAT, ASKATASUNA

INDAR ZAPALTZAILEEN  
DEUSEZTEA

Sestaoko Kristau Talde Batzu.



Gure Jaunok:

Alboko idazkia zuen aldizkariaren sailetariko batetan mesedez argitara dezazuela erregutzen dizuegu, zuen irakurleek moeta honetako gizarte informazioa har dezaten.

Eskerrak emanez,  
agurtzen zaituztegu

Iragan den 1976 honetan jazotako bi gertaera daude, guretzat, euskal homosexualentzat, garrantzi haundikoak, gure komunikabideetan aipatzetik izan ez dutenak.

Lehengoa, gaur egun planteaturik dugun problematikari erantzun bat ematen saiatzen duen Lambda Institutuaren aurkezpena Katalunian. Elkarhizketa, topaketa, ikasketa, dokumentazio eta laguntza toki bat izatea du gogotzat. Jadanik argitaratzen hasiak dira "Temas Monográficos de Sexología" direlako liburuxka batzuk, haue-tariko 1. zenbakia "Aspectos Medicocientíficos de la Homosexualidad" gut-tiontzat da garrantzizkoa, bereziki he-zitzaile eta gure jokabidea nolabait epaitzen dutenentzat.

Bigarrena sigla ezberdinekin pertso-naren oin-harrizko eskubide sorta bat defendatzen duten Homosexual Askapen Mugimenduen agerpena izan da.

Arlo honetan eginiko aurrerapen guztiek gure Herrian trazendentzia izan behar dutela pentsatuz, gertaera bi haue-tan guretzat zerbait baikorraren hasiera ikusten dugu: Arazoaren plan-teamena, bere konponbide posiblea be-giraturik.

Ez dugu ahantzi behar ere, askata-suna lortzeko sail orokor honetan eta sexualitate alorrean, Emakumeen Mu-gimenduak esku ere hartzen duela zeregin honetan.

Denok dakigu gure egitura, ez baka-rrik politiko eta ekonomiko, baizik eta ere sozialen aldaketa batekin soilik izan-nen datekeela gizonaren benetako askapena.

## ANAITASUNAREN OHARRA

ASKOTXO DIRA ANAITASUNARA TALDE, ALDERDI ETA ELKARTEETATIK HELTZEN ZAIZKIGUN OHAR, MANIFESTU ETA AGIRIAK. TEXTUOTATIK ASKO, EZIN ULERTUZKO EUSKARA ALDREBES ETA TRAKETSEAN DAUDE, ORTOGRAFI ETA JOSKERA OKER NABARIEKIN, ERDARAZKO ORIGINALATIK GAIZKI ITZULIAK IZANKI.

ANAITASUNAN ASKI LAN DAUKAGU EUSKARAZKO ARTIKULU ORIGINALAK ZUZENTZEAZ, INOREN FABOREZ ARGITARATZEN DITUGUN LANTXOAK ERE ZUZENTZEN IBILI GABE. GURE HERRIAK MEREZI ETA BERARI ZOR ZAION ERESPETUAGATIK, BIDALTZEN ZAIZKIGUN LANAK E U S K A R A Z -ETA EZ EUSKARA ITXURAKO ZERBAITEZ- IDATZIAK IZAN DAITEZELA ESKATZEN DUGU, EZ BAITIRA BESTELA ARGITARATUKO.

EUSKALTZAINDIAK BA DU, HORRETARAKO, ITZULPEN ZERBITZU OFIZIAL BAT, INTERSATUEK ERABIL DEZAKETENA. HAU EGITEAN EDOZEIN ERDAL ALDIZKARIK ERDARA TXARREKO ESKRIBUAK BAZTERTZEKO DUEN ESKUBIDE BERBERAZ BALIATZEN GARA, GEURE HIZKUNTZARI BERE DUINTASUNA EMANEZ.



## BIZIKLETA BAT, EGOKIENA

Munduro herri koskorretik "Don Joxe" jaunak gutun hau bidali digu:

"Anaitusanako lagunok:

Ni, politik arloan, erditarra naiz. Erdi-muturrekoa naizela diote nire ingurukoek. Ez da egoera erraza nirea, ene automobilari bolantea ezker aldean jarri baitiote, maltzurkeriz, nire ustez. Ni bezalako erdi-muturreko batek, nola eraman gus-tora horrelako auto bat? Zer egin? Azkar erantzun, arren.

Mila esker."

Hau egoera latza zurea, "Don Joxe" iHurrengo autoa Ingalaterran eros dezazula izan da gure erantzuteko lehen asmoa, han egindako autoek eskuin aldean baitute bolantea. Baina, nahiz eta lehen unean irtenbide hau onhartu, berealaxe alde batetara utzi behar izan dugu, Ingalaterrako autoak bideko ezker aldetik ibiltzeko pentsatuak baitaude. Gure jakintasanari ezkeresker, bereala beste irtenbide egoki bat aurkitu dugu: motorra bat eros eza-zu, motorrek gidoia erdi-erdian baitute. Hala ere irtenbide honek bere arriskua badu: motorraren motoreak kontrolpetik ihes egin dezake, zu, toki desegoki eta urrunetara eramanez. Irtenbide egokiena Eibarren egindako bizikleta soil bat erostea dirudi, askenez, mantsu eta erdikoa bezala ikusten batugu. Lasaitu zaitetz ba, txirringa bat erosi eta... ez zaitetz Orduinako portuaren bidean jarri!

## kontsultategi

"Consultorio" edo KONTSULTATEGI sailik gabe ez dagoela aldizkari serio bat egiterik ikustean, gaur mota honetako sailtxo bati emango diogu hasiera gure horriealdetan. Honetarako gure irakurle batzuk bidali dizkiguten galderak erantzungo ditugu gure borondate onenarekin, irakurle hauen bidez gure jakiduri eta bihotz onaren argi gidazaile bat izan dezan asmoz. Politik galdera batzu aukeratu ditugu gaur. Hona hemen gure lehen argi-izpiak.

### KOMUNA

Elurraio herritik beste lagun batek idatzi digu, bere arazoa azalduz. Hona hemen bere hitzak: "Politik arloan erdikoi bidetatik nabil trebeki, ezker eta eskuin aldekoak alde batetara eta bestetara ditudan artean. Nire arazoa nire etxea da: bi ate ditu, tamalez, bat eskuin aldean eta ezkerrean, bestea. Ni, erdizale bezala, behin eskuin aldeko atetik sartzen naiz etxean, urrengoan ezker aldetik sartuz. Irtenbide hau, hala ere, ez zait gustatzen eta zuek zuen jakinduriaz besteren bat ematen badidazue asko ezkertuko eskertuko nizueke."

Erdi-erdian beste ate bat irekitzea kontseilatzuten dizugu, beste biek, hertsu gabe, noski, orduan ate bakar hori ez baitzen "erdikoa" izango. Hala ere gure irtenbideak arrisku handi bat du: erdi-erdiko ate hori egitean etxeko sarrera komunetik izatea. Etxean bisitak sartu eta komunean eser eraztea ez da gauza normala, nahiz eta triapakomin duen bisita baten-batentzat egokia izan. Hala ere hau dugu irtenbide bakarra. Bestalde komuna etxeko eskuin edo ezker aldera aldatzea ez zen gauza txarra izango, nahiz eta hango muturrekoen kolpe batzu hartzeko arriskutan jarri. Aurrera, ba, eta erno! Bi ateko etxe bat gordetzea zaila baldin bada, zure hiru ateko etxe hori ez duzu txantxetako!

KONTSEILARI



## PAUSO HANDI BAT

KASeko erakunde politikoak, herri politikari doakionez, garrantzi handiko akordio batetara heldu berri dira, guztiek, aho batez, masen antolakunde baten alde, lokal elkarten problemetan (hauzategi, herri eta berauen gestioan) eragin nabaria duenaren alde, egitean. Berau A.S.K. izeneko dugu (Abertzale Sozialisten Komiteak) Bizkaian aspaldian ari izan eta, sortu zirenetik, dinamika oso azkarrak ibili direnak. Aipaturiko akordioa ondoko agirian gorputzen da:

"KASeko erakunde politikoek (EHAS,EIA, LAIA-bai, LAIA-etz) Bizkaiko Abertzale Sozialisten Komiteen (A.S.K.en) esperientzia, herri botereko estrategia iraultzaile bat bultzatzeko masen antolakunde bat den aldetik eta politika bide abertzale eta sozialista egoki baten alde dagoenez gero, erabat mesedegarritzat jotzen dute. Horregatik, herri antolakunde honi, Euskal Herriko beste herrialdeetako mugimendu asanbleari abertzale eta sozialista guztiekin kritikoki batu eta estruktura-


tzeko dei suhar bat egiten diote. Estrukturaketa hori indartzeko gogoz, KASeko erakundeek oinharritik harekin lan egingo dute".

Zin-zinez esan daiteke akordio hau sozialismo abertzalearen batasunerako bidean aurrerapauso bat izan dela. Langile eta gazte mugimenduan dauden zatiketak (LAB eta EGAM, EHASEk eta EIAk bultzatuak; LAK eta GAI, LAIAk eraginak), kasu honetan, gairiditurik geratu izan dira, eta erabaki horrek, ba dirudi, funtsean, masen antolakunde zereginari buruzko akordio sakonago bat agertzen duela, etorkizun hurbil batetan, langile mugimenduko LAB eta LAK, eta gazte mugimenduko EGAM eta GAI elkarren artean biltzeko prozesua nolabait erraztuz.

Horrialdeotatik Euskal Herriko beste herrialdeetan ASK laster zabal eta indar dadin geure esperantza adierazi nahi dugu. Hortaz, antolakunde honi aldizkari honen atea erabat irekitzen dizkiogu, beraren zerbitzutan jarritz.

## Argia ezinbestekoa den tokian,

## SAFT-URA bat ezar. Berezko argia du.



Jantoki, iraganbide, ikasgela, botikin, zaingela, eskailera, logela eta antzekoetan,

SAFT-URA emergentzi argigailuek beren segurtasuna eskaintzen dizute.

SAFT-URA-k pilagun argigailutan aukerarik ugariena dauka: aldizkakoak, semaforoak etab...

# SAFT

IBERICA, S. A. Artapadura, 11 - Tfnoa. 26 17 00 - Gasteiz

ANAITASUNA, 15 - 2 - 77



**IKURRINIK ZAHARRENA**

Ataun (Eurola Press).— Aita Josemiel Barandiaranek Ekainen arkheologi azterketak egiten ziharduelarik, Azil garaiko ikurrin zahar bat aurkitu du. Aurkikuntza ezusteko honek zientzi mundu osoa eragin du, ez baitzuen inork espero horrelakorik. Ez dakigu orain Bizkaiko Diputazioburuak eta Bilboko Udaletxekoek zer egingen duten, ikurrina ez onhartzeko aipatzen zituzten arrazoietarik bat gure bandera historia gabea zela izanik. Beharbada, antzarrak ferratzera joanen dira behin betiko, bokazioz egin behar zuten.

Argazkian aita Josemiel Barandiaran, Ekain haitzuloaren sarreran, langile batek erakusten dion ikurrin arkhaikoa seriooki aztertzen.



**EUSKARA**

## IRAKATSIKO NUKEEN HAUR EZ DAKITENEI.

Donostiako Fuenterrabía kalean dagoen boutique famatu bat jator ari da euskal iragarkiak erabiliaz, "jazkiak", "hondar-salmentak" eta honelakoak maiz ikusten baititugu bertan; dendariak ere euskaldunak dituzu.

Urtarrilaren bigarren hamabostaldian ordea honela zioen txarteltxo batek harritu gaitu biziki: **EUSKARA IRAKATSIKO NUKEEN HAUR EZ DAKITENEI.**

Oharra berandu dator antza, lehen irakatsiko baitzukeen NORI gabeko aditzaren arauera, eta bildur gara ere haurtxo horiek ez ote duten erlatibo batuz erabiltzen ikasiko halako irakaslearen laguntza.

Uholde

# «Txaketaz aldatzeko» erarik dotoreena.



Une honetan daramaguna da. Txaketan aldatzea. Denori iristen bai zaigu eguneratzeko ordua.

Baina badira oraindikoan ere formak. Eta ez da beharrezko helburuak aldatzea txaketaz aldatzeko. Ezta alkandora aldatzea ere. Ez eta korbata ere. Ezta neurrizko traje bat egiteko ere.

Alda zaite jazkiz. Gaur-gaurko, dotore, praktiko. Egungo estiloan. Garai berrien neurrian. Zure neurri hortan.

Auzmendi etxean.

## AUZMENDI

Vergara, 1. Tfno. 414060.

DONOSTIA

Gizon jazkiak neurri-neurrian.

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak .....

Bizilekua .....

Herria .....

Probintzia ..... Tel .....

# anaitasuna

Bizkaia  
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

### Urteko abonamendua:

Bertorako ..... 500 pezeta  
Latin Amerikarako ..... 550 pezeta  
Europa eta Ipar Amerikarako ..... 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

### HELBIDEA:

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

# Gipuzkoan, nor gu baino gertuago?

91 etxe zuretzat hurbilago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzkazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarren kutxa duzue Caja de Ahorro Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkaturik egon zaitezten.

Utz ezazu zeure uste osoa Gipuzkoako lehen Kutxa den etxe honetan.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL  
DE GUIPUZCOA

